




uk

26. zenbakia / 2002 otsaila

baserriakgainbehera

Aukeratu

onena zeure seme alabentzat



eskolako ereduen inguruko argibideak

Aurkibidea

4. EDITORIALA
5. IRUDIA. Mikel Martínez
6. ELKARTASUNA. Perualde, erromotarak lagunak Peruko umeen alde
7. GURE LAGUNAK MUNDUAN. Tomás Buchtele gure lagun bekia
8. PHOTO-FINHITZ. Unai Elorriaga & Mikel Martínez
9. LEHEN ETA ORAIN. Bolue 1994-2002. Asier Mentsaka
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Erandio 14. Leioa 18. Berango 22

SAKONEAN

26. ATZERRITARRAK GUREAN. Nola ikusten gaituzte eskualdean bizi diren atzerritarrek? Zerk ekarri ditu hona? Gurean bizi diren atzerritarren bizipenak ezagutu nahi izan ditugu
30. ERREPORTAJEA. Baserriak, gure ondarea galbidean. Javi G. del Herrero
36. BERBETAN. Xabier Euskitze, telebistako aurpegi atsegina

KULTURA

40. FOTOGRAFIA. Gonzalo M. Azumendi, mundutik jendea erretratatzeko
44. ZINEMA. Aitor Elorriagaren film labur berria, El Señor de los Anillos-ek eskualdeko artoak bete ditu. Historian diru gehien bildu duten filmeak...
46. LIBURUAK. Antzarrak lagun taldekoek Portu Zaharreko jaiak gogora ekarri dituzte liburu batean
48. MUSIKA. Kutsuz Areatxu fanfarria, 20 urtez giroa alaitzen. Canal Mousselyn. Roke Blascoren disko kutunak
50. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik
51. E-MAIL ELKARRIZKETA. Eskozian harapatu du Beñat Lores
52. KOMUNIKAZIOA. Patxi, Euskalteleko iragarki ospetsuaren egileekin berbetan egon gara. Athletic-en poster berria, zergatik aldatu duten jakin nahiz izan dugu
54. LEO BASSI. Probokazioa antzerkian

EUSKARAZ

56. URIBERTSOAN BARRENA. Xebastian Lizasori elkarrizketa. Aho bi saribanaketaren kronika. Begi belarri eta Katxoren bertsoak, Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik
60. EUSKARA
62. AKABUKO PUNTE. Larrabasterako Jose Miguel Begoñagaz berbetan egon da Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea

AMAITZEKO


64. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa Bizkaiko txakolinari buruz. Bidebitarte, Getxoko lehenengo Txokoa. Jose Mari Arzak, puntako sukaldaria elkarrizketatu dugu. Non jan? Adibidez Jolastokin. Eta pintxoak? Areetako Irintzi tabernan
70. HOROSKOPOA
71. KOMIKIA. Gorka Vázquez
78. BERRI HARRIGARRIAK Antxoaren inbasioa Portu Zaharrean, 1957
79. FLASH BACK. Sopelako Ikastola, 1977. Bittor Egurrola
80. AITORMENAK Claudio Landa. B&B



10 Baserriak galbidean




10 Zinema



10 Xabier Euskitze



10 Portu Zaharreko lehengo jaiak



10 Soldaduzka amaitu da



10 Gonzalo M. Azumendiren argazkiak



10 Xebastian Lizaso



● etxean, hilabetero jaso nahi baduzu deitu

● 94 491 13 37
irakurlearent **telefonoa**

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta E.S.E.
HELBITXIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: aldizkaria@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 94 Tel 491 13 37 & fax: 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Javi Gonzalez del Herrero, Maitane Burusko, Itziar Bened & Urtzi Iglesias
FOTOGRAFIA BURUA: Asier Mentsaka
TESTUEN OBRAZKETAK: Joseba Butron
INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
NARRAZKILARIA: Gorka V zquez
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Jokin de Pedro, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Xabi Bilbao, Unai Elorriaga, Algortako Bertsolari Eskola, Josu Zubiaur, Esti Ezkerra, Berbots eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartek
PUBLIZITATEAGORKA Orueta (94 491 13 37)
FILMAZIOA ARGIA / INPRIMATEGIA: ESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: d576-6799
Osorik edo satiz, makinaz sein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
' BOLUNTZARRETA
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen TOPAGUNE ko partaidea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza



Itxasgane Etxea / Karitatea



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jasadu



Erandioko Udala



Aldizkari honek Erandioko Berbots Euskara Elkartearen laguntza jasotzen



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso

Behar-beharrezkoa!

dirulaguntza!

ditugu zuen

BK2095 0022 00 91 02483676

Boluntzarreta

editoriala

Aro berria

GURE IRAKURLE zaharrenek gogoratuko dute; duela sei bat urte Bizarra Lepoan izeneko euskarazko aldizkari bat argitaratzen hasi ginen Getxon, behar hura ikusten genuen lagun batzuk. Hiru urte inguru iraun zuen aldizkari hark. Gero eskualdera zabaldu nahi izan genuen gure aldizkari txikia eta Bizarra Lepoan-en errautsetatik UK Uribe Kostako Aldizkari jaio zen orain dela urte hiru urte. Helburuak hasieran genituen berberak ziren; eskualdeko euskaldu-nontzako komunikabide duin bat egitea, bestelako komunikabideetan nekez argia ikus deza-keten edukiak gure irakurleei helaraztea, euskaldunok euskaldunon berri izatea... Ohizko komunikabide erraldioen ahotsak bezain garrantzitsuak (bere txikitasunean bada ere) dira beste batzuk, gurea kasu. Hori sinesten dugulako, akaso burugogorrak garelako, edo auska-lo zergatik, ez dugu etsi nahi eta horregatik, urte batzuk igaro diren arren, hasierako ilusio ber-berarekin jarraitzen dugu lanean aldizkari honek hazten segi dezan. Esku artean darabilzun orrialde sorta hau da gure azken ahaleginaren emaitza: atal berriak, orrialde kopuru bikoitza... Guk zuri, irakurle horri, ahalegin honen ordainean, aldizkaria bera zabaldu dezazun eta ahal duzun neurrian lagundu gaitzazun baino ez dizugu eskatzen. Eta amaitzeko, ez ditugu ahaz-tu nahi urteotan egitasmo hau bizirik mantentzen lagundu diguten pertsona, merkatari eta erakunde guztiak. Eurei gure esker ona.

UK-ko lantaldea

besteekesanak

“Asko hitz egin da mestizaje santu horretaz, eta beti aipatzen da beharrezkoa, iraultzailea eta modernoa dela; baina azkenean gu gara beste kultura edo moduetara mestizatu behar izan dugunak. Horrekin homogeneizatzea eta gure identitatearen galtzea ziurtatuta ditugu.” **Joseba Tapia** (musikaria)

“Dagoeneko, euskara ez da iraultza egiteko edo Francoren kontra borrokatzeko tresna bat. Erresistentziaren ikurraren glamourra galdu du euskarak (...) Euskarari ez zaio komeni jada nazionalismoarekin ezkondu dezaten (...) Euskarak soziologia gehiago behar du.” **Ramon Saizarbitoria** (idazlea)

jasodugu

AUPA ATHLETIC!

Ikusi dugu, gure Athletic ez da martxoaren 6an Madrilen jokatuko den finalean egongo. Ametsa buka-tu da eta berarekin batera jokalaria askorentzako titulu bat irabazteko azkeneko aukeretako bat. Ametsa bukatu da baina oraindik, esnatu ondoren, badakigu merezi izan zuela, hainbesteko poza sortzen duen ilusio bat ezin baita kaltegarria izan. Ametsak beti bukatzen dira, hori betidanik jakin izan dugu; batzuetan betetzen dira eta gehienetan ez, baina askotan amets egiteko aukera izatea, amets bera lortzea bezain garrantzitsua izan daiteke.

Gurea oraingoan ez da bete, baina merezi izan du azkeneko partidua galdu arte bizi izan dugun guztia: ilusioa, poza, itxaropena... Gure ametsa ez da bete, ez; baina Athletic-ek ilusioa eta itxarope-na piztu du eta bizirik mantendu du zaletuengan azkeneko partidura arte, talde handia zenean egi-ten zuen bezala..., berriro ere handia izanez. Ez dugu lortu, baina saiatu gara. Ez dugu lortu, baina polita izan da saiatzen ibiltzea. Ez dugu lortu baina, lortuko dugu. Ziur. Bihotzarekin jokatzen dene-an ez dago ezinezkorik. Eta lortu arte, topa egin dezagun; finalerdia galtzea aurten gertatuko zaigun gauzarik txarrena izan dadila! Eta aupa Athletic!

J. G. del Herrero (Sopela)



Hostoak, orriak, orbela... Ziklo baten amaiera eta beste berri bat hasteko baldintza. Hosto hilek lurrarekin bat egingo dute, sorburura itzuliko dira. Lurretik sortu ziren eguzkiaren bizi indarrarekin hornitzeko, eta orain lurrari itzuliko diote jaso duten bizia, energia. Bizitzaren zikloa. Hil ez da ezer hiltzen; aldatu egiten da.

Argazkia: **Mikel Martinez**

Erakundea Perualde

Erromoko lagunak Peruko **umeen alde** lanean dabiltza duela bost urte

Duela bost urte Erromoko talde batzuk, Peruk bizi zuen egoeraz kezkatutik, “Perualde” sortu zuten, Hegoameriketako herrialde hau laguntzeko erakundea. Javi Jimenez, taldeko presidenteordeak aitortu zigunez, *“Edozein herrialde izan liteke, baina Perun egondako taldeko lagun batek hango egoera larriari buruz luze hitz egin zigun eta laguntzeko zerbait egin genezakeela ikusi genuen”*. Ludoteka bat eraikitzeko kanpaina bat hasi eta laster ikusi zituzten lehenengo emaitzak eta lortu zituzten 30 milioiekin Liman altxatutako eraikuntzaren argazkiak. *“Horrek asko animatu gintuen eta gauza gehiago egitea erabaki genuen”*. Horrela 1997an Perualde, Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) bihurtu zuten, Peruko umeen alde lan egiten jarraitzeko asmoz. *“Peruko jendeak gugaz batera egiten du lan; guk hemendik eta haiek handik beste lan mota bat egiten”* dio Javik. *“Adibidez, kaleko ume izan ziren askok gaur egungo kaleko umeak laguntzen dituzte”*.




Perualdekoek laster aterpe bat eraiki nahi dute Amazonian

Proiektu honez gain, Perualdekoek laster egiteko beste bi egitasmo darabilte; umeentzako aterpe bat eraikitzea Amazonako oihanean eta tutoretza proiektu berriztatzailea. Bigarren egitasmo honetan, Getxoko 25 familiak hartuko dute parte.

Gaur egun, Perualden 35 lagunek hartzen dute parte eta guztira 130 bazkide inguru dira. Lanean jarraitzeko ideia ugari dituzte eta, garrantzitsuena, bere proiektuei gogor eusteko gogo handiak. ^m

Harremanetarako: Javi Jimenez 94 464 14 61



Hiztegia ez ezik, Tomásék gidaliburu bat egiteko asmoa darabil, gurrera etor daitezkeen Txekiako turistentzat

Euskaldunon lagun **txekiarra**

Pragan bizi da filologo gazte hau. Bilbora gaztelania ikastera etorri zen aspaldian eta gero bere kabuz euskara ikasten hasi zen. Gaur egun Nerea Madariaga bilbotarrarekin batera txekiera-euskara hiztegia prestatzen ari da. Hiztegiak datorren urtean argia ikustea espero dute.

Peruko lagun bat bisitatzeraz joan nintzen Madrilera. Txinatar batean afaltzeko hitzordua egin genuen eta lagun frantses batekin etorri zen, Noemi. Euskalduna nintzela esan nion Noemiri eta berak euskarekin maiteminduta bizi den lagun txekiar baten berri eman zidan, bere lagun hori Tomás Buchetele zen. Gainera, Tomásék Bilbon egon behar zuen. Eta horrela ezagutu genuen. Beragaz Bilboko Boulevardean elkartu ginen eta hantxe eman zigun bere bizitzaren berri. Tomásék errusiar filologia eta espaniarra ikasiak ditu. Doktoradutza beka batekin gazteleraz ikastera etorri zen Bilbora eta horrela

hasi zen gure hizkuntzarekin maitemintzen, batez ere, bizkaierarekin. Izan ere, filologo-entzat, euskara oso hizkuntza interesgarria omen da. Gero Tomásék egonaldi batzuk egin zituen Nafarroako barnetegi batean eta gaur egun ederto egiten du berba euskaraz. Bilbon ezagutu zuen Nerea Madariagarekin egin gabe zegoen euskara-txekiera oinarritzko hiztegia osatzea bururatu zitzaien; esan eta egin. Hiztegi honek, Tomásék azaldu digun moduan, helburu nagusi bi ditu. Alde bate-tik, euskal ikerketak Txekian sustatzea (orain sarrera eskola batzuk har daitezke Pragako unibertsitatean); eta, bestetik, Euskal Herria

herrialde hartan ezagutzera ematea. Izan ere, indarkeriagatik ez bada, ezer gutxi dakite txekiarrek euskaldunoi buruz. Tomás sarritan egon da hango telebista eta gainerako komunikabideetan euskal gaiaz hitz egiten, herri hau zer den azaltzen. Eta hau guztia gutxi balitz, Tomásék, beste lagun batzuekin batera, eusko-txekiar elkarteak sortu zuen herri bien arteko harremanak sustatzeko. Gainera, datorren urtean Pragako unibertsitatean euskara ikasteko ikastaroak jarri nahi ditu. Eskerrik asko, Tomás. ^m

Harremanetarako: **tobuchtele@centrum.cz**

Tatiana Urien urteko boluntarioa

Joan den abenduaren 4an Getxoko udalak urteko boluntarioaren sarietan banaketa ospatu zuen. Sari hauek herrian laguntza behar dutenen alde beharrean dabil-tzan boluntarioen lana saritu nahi dute. Iazko sarituen artean Tatiana Urien “Uribe Kosta gaixo psikikoen aldeko” elkarteko kidea zegoen. Getxoxtar honek 27 urte ditu eta zortzi daramatza elkarte honetan bolun-tario lanak egiten. Eta bera aukeratu zuten urteko boluntario. “Espero ez nuen saria izan zen; inoiz eman didaten lehenengoa. Nire elkartekoek nominatu nin-duten nik ezer jakin barik eta eman zidaten arte ez nuen ezer jakin”, aitortu zigun Tatianak. Saria, Aixerrotako errotaren zilarrezko erreplika polita, etxe-an dauka honezkero. “Poz handia hartu nuen; lanean jarraitzeko pizgarri ederra izan da eta, egia esan, lan handia dago egiteko oraindik”. “Uribe Kosta gaixo psikikoen aldeko” elkarteko kide guztiak boluntarioak dira eta buruko atzerapena duten pertsonekin lan egi-ten dute, aisi denbora betetzen laguntzen, gehien bat asteburuetan. “Lan handia da eta lagun gutxi gara. Horregatik aprobetxatu nahiko nuke ematen dida-zuen aukera hau interesa izan dezakeen jendearen laguntza eskatzeko. Behar-beharrezkoa da”.



Tatiana Urienek zortzi urte eman ditu gaixo psikikoen alde lan egiten

Fribolitatea erabatekoa



“Ez dira konturatzen irakurtzea guztiz ohitura friboloa dela”

Kalera irten eta hara: jendea ikusi dut bankuetan, zer egiten eta irakurtzen. Eta lotsarik gabe egiten dute, gainera. Denen aurrean ari dira irakurtzen, munduko gauzarik naturalena balitz bezala. Irakurtzen dute asko eta irrika handiz. Ematen dute ordubete igual irakurtzen banku batean; gehiago batzuetan. Lotsarik gabe.

Ez dira konturatzen irakurtzea guztiz ohitura friboloa dela, ez duela ezertarako balio. Lan egiteko denbora kentzen du irakurtzeak. Burua nekatzen du gainera, eta burua nekatuta dagoenean ez dago lan egiterik. Eta lan egitea da printzipalena pertsonarentzat. Gero familia zaintzea; badakizu, seme-alabei zaplazteko batzuk jotzea-eta. Halako gauzak. Zaplaztekoak jo behar zaizkie seme-alabei lantzean behin. Badakizu, ohitura txarrak-eta ez hartzeko. Esate baterako egun osoa irakurtzen ez emateko. Orain *El señor de las sortijas*, edo halako liburu batekin ari dira egun osoan. Eskutik kendu behar izaten diet, probetxuzko zerbait egin dezaten. Gainera, ez dute pelikula egin orain? Ikus dezatela pelikula. Hiru ordu baino ez dute alferrik galduko horrela. Uste dut, gainera, lelokeriak baino ez direla esaten liburuan (pelikulan ere bai), eta bitxoak agertzen direla han-hemen, bestelako esplikaziorik gabe. Irakurtzen badute, irakur ditzatela ekonomiaren legeak, edo langile saiatuaren gidaliburua. Hor agertzen dira azalpen politak eta hor ikasiko lukete bizitzan triunfatzeko eginbeharrekoak.

Bizitzan triunfatu. Hori esaldi polita. Ikusi duzue inoiz asko irakurri eta gero bizitzan triunfatu duen pertsonarik? Irakurleak “galtzaileak” izaten dira beti eta ezin izaten dute kotxe handirik erosi. Inoiz ez daukate komuneko konketan erretzeko moduko diru kantitatea. Nik askotan egiten dut hori. Lehengo egunean 500 euroko bat erre nuen komuneko konketan. Horrek adierazten du triunfatu dudala. Eta oso-oso liburu gutxi irakurri dut bizitzan, eta lelokeriak kontatzen dituztenetakoak bat (edo gutxiago beharbada). Bat irakurri nuen umetan, munduaren kontzientziarik ez neukanean. Ez nuen ulertu. 1



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / BOLUE 1994-2002

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Begirada bat iraganari

Carlos Aiestaranek **“Echevarría, Guardameta del Athletic Club”** liburua idatzi berri du. Liburuak Jose Maria Echevarría, 1938 eta 1942 urte bitartean Athletic-eko **atezain** getxoztarraren bizitza kontatzen du



Carlos Aiestaranek hiru urte behar izan ditu liburu eder hau osatzeko

Athletic-en 100. urteurrenean omenal- diren bat egingo zitzaiolakoan nengoen baina ez zen horrela izan. Nire uste apalean kluba ez zen ondo portatu hain garrantzitsua izan zen atezain honen senideekin eta merezita zuen gorazarrea nire kabuz egitea erabaki nuen” esan digu Carlos Aiestaranek. “Echevarría Lezama baino lehen egon zen talde mitiko hartan eta Athleticen historia osoko jokalaririk ospetsuenen ondoan jokatzeko aukera eduki zuen (Zarra, Iriondo, Panizo eta Gáinzaren talde ahaztezin hartan). Guztira ia ehun partidua jokatu zituen Athleticen kamisetarekin eta internazionala izatera heldu zen. Bere ospea handiago izango litzateke 1942ko aurre-denboraldian lesio batek bere karrera bertan behera utzi izan ez balu”. Li-

burua hiru ataletan banatuta dago; lehenengoa atezain mitiko honen biografia da, bigarrenak Athleticen historia kontatzen du eta hirugarrenean gerra, futbola eta garai hartako gizarteari buruzko pasadizo ugari aurki ditzakegu. Ediciones Beta-k argitaratua Getxo Udalaren laguntzarekin, liburuak argitaratu gabeko argazkiak biltzen ditu eta, beraz, dokumentu historikoa da. Carlos Aiestaran egilea Barakaldon jaio eta Bilbon bizi zen 1982ra arte. Ordutik Algortan bizi eta herriko semetza-koa sentitzen da. Biologian lizentziatua eta irakaskuntzan aritua, 1984tik Eusko Jaurlaritzako kultura saileko kidea da. Idazlan ugari idatzi ondoren, orain dela hiru urte Carlos bere lehenengo liburua idazten ausartu zen. Azkeneko hiru urte

hauetako fruitua luxuzko edizio hau da. “Futbola izugarri gustatu zait betidanik eta, bizkaitar gehienak bezala, Athletic-ekoa naiz. José M^a Echevarría, nire aitaginarreba izateaz gain, Athletic-ek inoiz eman duen atezain onenetariko bat izan zen (eta Euskal Herria eta Estatuko selekzioekin internazionala izan den getxoztar bakarra) eta, gaur egungo zaletuen gogoan erdi ahaztuta ikusten nuen ezagutarazi nahi izan dut liburu honen bidez”. Lana ez da erraza

“Echevarría, Euskal Herria eta Estatuko selekzioekin internazionala izan den getxoztar bakarra da”

izan. “Informazioa lortzea eta batzea lan neketsua izan zen. Geroago, liburu bi idazteko datuak nituela ikusi eta laburtzen hasi nintzen aspergarria izan ez zedin. Argazkiak eta informazioa lortzeko lan horretan Athletic-eko Asier Arrate eta Maite Ibañezek (eta klubak, oro har) asko lagundu ninduten. Eta ekonomikoki Getxoko udalak, haiengana jo nuelarik, Echevarría Getxoko semea baitzen”. m



Goian, Echevarría. Ezkerrean, liburuaren azala.



AGATE DEUNA. Urtero legezt, aurtan ere abesbatza askok parte hartu zuen Agate Deunaren bezperako abesbatzen jaialdian. Guztira 26 talde. Ohitura denez, talde guztiek herriko kaleak zeharkatu zituzten. Iluntzeko zortziak aldera San Nikolas enparantzan (Algortakoek) eta Eskoletako Plazan (Erromo-Areetakoe) elkarrekin abestuz amaitu zuten eguna. Argazkian, Lauaxeta euskaltegiko ikasleak

Leire Escagedo zientzi-dibulgatzaile saritua



EHuko irakasle getxoztar hau Elhuyar Sari Zientifikoaren azkeneko irabazlea izan da *Klonazio terapeutikoaren mito; egia eta gezurrak* tituluko bere lanagatik. Sariak urtarilaren 11n banatu zituzten Elhuyar erakundekoek eta EHuko irakasle honek dibulgazio artikulurik onenarena eraman zuen etxera; eskultura bat eta 900 euroko txekia. Idazle berriak saritzeko zortzigarren edizio honetan lanik onena Leirerena zela eraba-

ki zuten epaimahaikoek. “*Lagun batek parte hartzeko animatu ninduen eta apuntatu egin nintzen, baina egia esan ez neukan irabazteko esperantzarik nire lehenengo aldia baitzen eta zientzietako gai bat zela-ko*”. Esker onekoa da Leire eta ez ditu bere lankideak ahaztu nahi izan: “*Oso garrantzitsua izan da nire ikerketa taldeak egindako lana. Guztiok egindako ahaleginari esker irabazi dut*”. Etorikizunari begira Leirek badu bide honetatik jarraitzeko asmoa, zientziaren dibulgazioan lan egiten, irakaskuntza alde batera utzi barik. m

INFORMATIKA ETA INTERNETEN NABIGATZEN DOAN IKASI

Joan den abenduaren 21ean, Eusko Jaurlaritzak, Getxoko Udalarekin batera, KZ (Konekta Zaitetz) Gune berri bat zabaldu zuen Areetako Kultur Aretoan, Las Mercedes 13, 4. solairuan. Zentroa 18 urtetik gorako lagunentzat da eta badira 400 pertsona baino gehiago apuntatu direnak zentro honek eskaintzen dituen ikastaro ezberdinetan. KZ Guneak, oinarritzko formakuntza (ordenadorea nola erabili...), askoz sakonagoak diren lau eta 16 orduko ikastaroak, eta nabigatzen ikasteko bi orduko ikastaroak eskaintzen ditu eta gaur arte lortu duen arrakasta espero zena baino handiagoa izan da, lehen esan dugun bezala, dagoeneko 400 lagun baino gehiago baitira zerbitzu hau erabiltzen dutenak. Gehienak 45 urtetik gorakoak dira, batez ere, informatikaren mundua zertan den ezagutu nahi duten trebatu gabeko gurasoak. KZ Guneak eskaintzen duen zerbitzu hau dohainik da eta laster Euskal Herriko beste hainbat tokitan zentro berriak zabaltzeko asmoa daukate.





Ibilaldia2002

Gaizka Elosegik eta Jon Etxeandiak kanta konposatu dute

San Nikolas ikastolakoek jo eta ke jarraitzen dute lanean datorren maiatzaren 26an Getxon ospatuko den Bizkaiko ikastolen aldeko jaiaren pres-takuntzekin. Ibilaldiaren kanta, Gaizka Elosegik eta Jon Etxeandiak idatzi eta konposatu dute, San Nikolas ikas-tolako ikasle ohiak biak eta musikagi-leak. Orain grabatzea baino ez zaie falta. *Luhartz* taldea izango da irudia eta ahotsa jarriko dion taldea, baina baliteke talde gehiagok parte hartzea. Orain Ibilaldiko arduradunak bideo-klipa eta CDaren prestakuntzekin dabil-tza, beste lantalde handi bat falta diren gaiekin arduratzen den bitarte-an. Otsailaren bukaerako ekintza erraldoi bi prestatu dituzte Bilbon; alde batetik, erakusketa handi bat dirua biltzeko eta bestetik, oraindik data finkorik gabe, Ibilaldiaren aur-kezpena, *VIP (Very Important Person)* askorekin, azken hilabeteotan aurrera-tu dizuegun guztia gizarteari ezaguta-razteko. Maiatzaren 26a gero eta hur-bilago dugu eta San Nikolasekoek ez dute denbora galdu nahi. Lagundu nahi dutenek 94 430 54 78 dei deza-kete edota posta elektroniko helbide berri bat idatzi:

- prentsaibilaldi2002@hotmail.com
- [Webgunea: www.ibilaldia.net](http://www.ibilaldia.net).

Dirua Argentinako euskal etxeetara Bestetik, joan den otsailaren 4an, arratsaldean, San Nikolas ikastolako umeak Getxoko kaleetatik ibili ziren Agate Deuna abesten helburu zehatz batekin; dirua biltzea liburu eta euskara ikasteko material berria erosi ahal izateko Ar-gentinako Euskal Etxeetara bidaltzeko, han daukatena zahartuta dagoelako. m







Armando Guerra sarjentuak getxoztarrak armadan parte hartzera deitu zituen

Derrigorrezko soldaduskaren bukaera ospatu zuten Getxon

Joan den urtarrilaren 5ean GA (Getxo Antimilitarista) taldeko gazteek kale antzerkia antolatu zuten Algortako geltoki-n enparantzan soldaduskaren desagerpe-na ospatzeko. Hara bildutako jendeak harrituta ikusi zuen zelan ejertzito profe-sional berriaren batailo inprobisatu batek erreklutatze bulegoa jarri zuen bertan, Armando Guerra sarjentuak, operatibo erraldoi haren buruak, getxoztarrak arma-

dan parte hartzera gonbidatzen zituen bitartean. Parodia bukatu ostean, antimilitaristek ikusleak gerrarik gabeko mun-duak marraztera gonbidatu zituzten. Horrela, umeen parte-hartzearekin Ge-txoko marrazki antimilitaristen lehen tai-lerra ireki zuten. Guztira 75 marrazki bil-du zituzten. Irudi hauek urtarrilaren 21-etik 25era bitartean Itxasgane etxean ikusi ahal izan ziren. m

Umeek egindako irudietako batzuk



1.000tik gora umek euskal kantak eta dantzak ikasten dituzte Getxoko ikastetxeetan


Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuaren ekimenez, 1999-00 ikasturtearen hasiera-tik, herrikoak diren Agurra, Itxartu eta Itxas Argia dantza taldeek, dantza eskolak ematen dituzte Getxoko ikastetxeetan hel-buru zehatzekin: euskal kulturaren zati garrantzitsu hau umei irakastea; eta euskaraz, gure hizkuntza gehiago erabil dadin. Eskola hauek 6-12 urte bitarteko

ikasleentzat dira: astean behin eskola orduetan, proiektu honetan parte hartzen duten 10 ikastetxeetan. Aurten 700etik gora dira orain arte izena eman duten ikasleak. Dantza ez ezik, euskal kantak ere irakasten dira ikastetxeetan. Astean behin ematen dira eskola hauek eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek hartzen dute parte. Eskola hauen helburua hiru-

koitza da; betiko euskal kantuak eza-gutzea eta ikastea, kantuen historia (non-dik datozen, esana-hia, noiz kantatzen diren...) ezagutaraz-tea eta banaka eta taldeka kantatzeko gai izatea.

Informazio ge-hiago jaso nahi due-nak, Euskara Zer-bitzuaren telefono-ra dei dezake:

94 489 02 18



San Nikolas Ikastolako ume talde bat dantzan ikasten

EGIZU

EKITALDIAK EUSKARAZ

Sexualitatea

Otsailaren 4an hasiko da eta apirilaren 29an bukatu. Astelehenero izango da. Guztira 12 saio. Goizeko 10:00etatik 12:00etara Erromoko Kultur Etxean Matrikula: 15 euro Irakaslea, Saioa Hernandez, psikologoa eta "Argitan" elkartekidea.

Euskal dantzak

Otsailaren 11n hasiko da eta apirilean bukatu. Astelehenero izango da. Arratsaldeko 20:30etatik 21:30etara. Agurra dantza taldekoen eskutik Matrikula: 10 euro

Hitzaldia

Otsailaren 20an, asteazkena, 19:30etan, Itxasganen (Karitate kalea 1, Algorta) "Heriotzaren erritoak" Akaitze Kamiruaga, Labayruko kidearen eskutik

Informazio gehiago:
605 739 916, Leire

SATISTEGI

CAFE

ADITUAK GARA

PINTXO ETA

BOKATA

BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51

ALGORTA

% 94 46019 69

KURKUDI

LIBURU DENDA

Euskarazko

irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA

T: 944 913 402

Chuli itsasadarreko gizona

56 urtean Ibaizabalen gora eta behera beharrean ibili ostean, itsasadarrek izan duen aldaketa itzela dakarkigu gogora **Jesús Suárez Albizua** “Chulik”

Ibaizabal itsasadarreko uraren kolorea argituz doa. Ezker zein eskuin aldeetako paisaia argituz doa. Eta, orobat, zeruak berak argiagoa dirudi, duela ez urte asko mineral-hautsak eta kea nagusi baziren ere. Ia edonoren begien aurrean, Bizkaiko inguru hau naturaren bizitza berreskuratzeko bidean da. Ez, ordea, Jesús Suárez Albizuarentzat, Chulirentzat: *“Itsasadarrek meategi itxi bat dirudi. Politagoa bada, baina zerbait falta zaio”*.

Erandioko itsasadar gizon honek ibaian gora eta behera igarotako 56 urteak (75 laster egingo ditu) oso gogoan ditu. *“Nire uste apalean, ez duzu aurkituko nik baino gehiagotan Bilbotik Santurtzirainoko ur-bidea egin duenik”* dio, nolabaiteko harrotasunez

Eta ez da harritzekoa. Bizi modu gogorrek norberarengan utzi ohi duen arrastoa Chulirengan ere –goitizena nahiago du berak– nabaria baita. Itsasontzientzako janari hornitzaile, Erandio eta Barakaldo arteko txaluparen patroï edota amarrak lotzen jardun zuen, eta behin baino gehiagotan soldata xume baten truke.

“1941ean hasi nintzen lanean itsasontzien hornitzaile, eta 2 pezeta baino ordaintzen ez zizkidatenez, bada, batzuetan itsasontzietara eraman behar nuen janariaren parte bat etxera eroaten nuen”, dio, gogora ekarriz halako legeak agintzen zuela, hein batean, itsasadarrean zein bazterretan kokatutako enpresetan gogor lan egiten zuten milaka langileren artean.

Chuli nostalgiaz oroitzen da Errontegi zubia eraiki barik zegoen garaia, noiz eta Erandio eta Barakaldoren arteko joan-etorria 7.000 behargin inguruk txalupaz egiten zuten: *“Egunero milaka soldatzaile, enkofratzaile, zamaketari, marinela, arotz, patroï eta igarotzen ziren txalupaz garaiko ontziola, atoi-ontzi, gabarra eta ehunka*



“Itsasadarrek meategi itxi bat dirudi”

lantegitan behar egiteko. Alabaina, garai hartatik ezer gutxi geratzen da”.

Lan gogorra ez ezik, nolabaiteko abenturak bizitzeko aukera ere izan zuen Chulik, desgogara gehienetan. Adibidez, itsasadarretik atera zituen hildakoak zenbatzean 30 inguru kalkulatzeko ditu. Eta lan “desatsegin” horietariko batean, 1947an, Guardia Zibileko kuartelean amaitu zuen; ustekabean itota aurkitu gizona mugazain bat zelako: *“Mosketoia falta zitzaion, eta hara eraman ninduten deklaratzera. Azkenean, ez zen ezer jazo, baina itzelezko ikara hartu nuen”*.

Bere historiaren beste protagonista batzuk Errusia, Norvegia, Suedia edota Ingalaterratik etorririko itsasontzietako marinela ziren. *“Alkohola oso merkea zen*

haientzat eta, jakina, askotan ikus zitezkeen erabat mozkortuta eta, behin baino gehiagotan, borrokatan. Beste giro bat zegoen”, azpimarratzen du Chulik.

Bere oroimenean gabarretan jarduten zuten langileek ere badute bere txokoa, sufrimenduzkoa bada ere: jantzi desegokiak soinean, neguak gorriak izaten ziren gabarrakoentzat. Hotzez dardarka, hotza kentzeko alkohol larregi edaten zuten, beste erremediorik ez zen eta. *“Benetan, bizitza petrala zen haiena. Horregatik biraoka zebiltzan egun osoan. Badakizu jendeak dioena: «Gabarnari batek baino arnegu gehiago botatzen duzu»*. Benetan, beste giro bat zegoen. Gaur egun itsasadarrek meategi itxi bat baino ez dirudi”, deitoratzen du. m

Kantagunea abesten ikasteko

Antzinako eta egungo euskal kantak ikasteko aukera dugu “Kantagunea” izeneko ekimenari esker. **Altzaga** Ikastolako Ikasleen Gurasoen Elkarteak bultzatu du ekimen hau, eta nahi duen edonori **zabalduta** dago.

Gure herrian beti izan da kantarako joera, bai lagunen artean, zein ospakizunetan, jaietan...; baita modu serioagoan abesbatzetan eta. Kantagunea ez da kanta taldea osatzeko ekimena, ezta inola ere; gero eta gutxiagotan egiten dugun ariketa sanoari, kantatzeari, era lasaian ekiteko baino.

Ekimen honen bidez ikasteko aukera dugu, antzinako euskal kantak zein berriak, den-denak oso entzunak ditugunak baina kantatzeko orduan ez dakizkigunak edo erdizka baino kantatzeko gai ez garenak.

Zorionez gure herria oparoa da kantuetan. Kantuen bidez, gauza asko ikas dezakegu. Kanta bera eta doinuez gain, euskara maila aberasteko ere baliagarriak dira eta garaian garaiko kezken eta sentimenduen berri ematen digute. Batzuk amodiozkoak dira, beste batzuk hizkuntzaren egoeraren ingurukoak, erreibindikatioak beste batzuk..., gertaera historikoen berri ematen dutenak, sehaska kantak, antzinako lanbideen oroi-garri, jolas kantak, herrietan egiten diren bertako kantuak, jaietakoak... Uste baino altxor handiagoa gordetzen dutenak eta gure herriaren historia, gorabeherak eta kul-



Hilabetero lehenengo ostegunean elkartzen dira Kantaguneko kideak

tura hobeto ezagutzeko informazio iturri direnak. Baina ez da hori bakarrik, Kantagunean euskal musika eta kultura hobeto ezagutzeaz gain, elkarrekin izateko eta lagun berriak egiteko aukera paregabea dugu. Hi-

labetean behin, lehenengo ostegunean, bil-tzen dira Erandioko Udaletxepeko lo-kaletan arratsaldeko zazpitan.

Bertara hurbilduz gero gustura egongo za-rete eta gainera esku zabalik hartuko zaituzte. m



azkartasuna
kalitatea
prezioa
*kamisetarik onenak
preziarik onenen!*
zure kamiseta,
publizitate artia
kulu eta fotoko



ATOR

¥ Fotokopiak zuribeltzeanPlastifikazioak
¥ Fotokopiak koloretan ¥ Inprentak, txarte
¥ Enkoadernazioak, faszlak
kuluak ¥ Papeleria

ALGORTA
Algortako etorb. 106
Tf.: 94 460 10 31 / Fax: 94 460 86 62

BILBO (lantegia eta biltegia)
Moncada 9, 3.
Tf.: 94 410 37 07 / Fax: 94 410 34 46
e-mail: atorfym@euskalnet.net

LEIOA
Sabino Arana etorb. 86
Tf.: 94 480 04 46 / Fax: 94 480 04 46

zure markarik onenak sport

Serigrafia eta transfer

LAGUN TALDEAK!!!

Kamisetak, Sudaderak, Poloak, Prakak, Euritakoak....



Muxarangakoen kontuak adi-adi jarraitu zituzten bertaratuek

Ipuin kontalariak Erandio Goikoan

Belaunaldi berriei Euskal Herriko ohitura zaharrak ezagutzera emateko asmoz, ekitaldia antolatu zuen Berbotsek joan den urtarilaren 18an. Izan ere, ohitura zaharra zen gurean sutondoan bildu eta kontu kontari jardutea, esku artean zereginen hartuta. Hamaikatxo kontu kontatzen zioten elkarri artaburuak garautzen, indabak aletzen edo beste edozertan ibiltzen ziren bitartean. Bizimodua aldatu eta hutsik geratu zaigu garai batean horren oparoa zen ahozko ipuinen zorroa. Jendea sutondoan barik telebista inguruan biltzen hasi ginenean, eten egin zen, neurri handi batean, ipuinen transmisioa. *Muxarangak* taldea osatzen duten Aizkoak eta Itziarrek gaur egun dugun hutsune hori betetzeko aukera eskaini ziguten Erandio Goikoko elizpean, Euskal Herriko aspaldiko lagunak bizimoduaz kontu jakingarriak eta ipuinak kontatuz. Txiki eta nagusi, adi-adi eta gustura egon ginen eurei begira.

Exprésate en euskera



UDAL EUSKALTEGIAK

Amorebieta-Etxano • Arrigorriaga • Basauri Durango • Erandio • Ermua • Etxebarri Galdakao • Gernika • Leioa • Mungia • Muskiz • Portugalete • Santurtzi Sestao • Sopela • Trapagaran • Txorierri

Euskara ikastaroak Cursos de euskera

IRAILA-EKAINA 2001/20
SEPTIEMBRE-JUNIO 02

MAILA GUZTIAK / TODOS LOS NIVELES
16 urtetik 99 bitartean / De 16 a 99 a os

IKASTARO ETA MODULO BEREZIAK
EGA / HIKA / BIZKAIERA / MINTZA

Egin ezazu zure matrikula!

HORARIO / ORDUTEGIA
Ma anas, tardes y noche / Goizez, arratsaldez eta gauez

CLASES en IES Astrabudua y Bekoa



ERANDIOKO?UDAL?EUSKALTEG
Bekoa Ikastetxea
Desanexión kalea, 4 behea
Tel.: 94 467 60 75
erandio.eusk@euskalnet.net



Aitziber Ortega

15 urteko ipuin asmatzailea

Pertsonaia asmatu, pertsonaiaren barruan sartu eta haren barrenetik eta sentipenetatik abiatzen da Aitziber Ortega ipuinak egiteko. Horrela sortu ditu “Adoptatutako amama” eta “Aitziber, ganbarako panpina”, Erandioko udalak antolatu duen ipuin sariketan bere mailako bigarren eta hirugarren sariak eskuratu dituen Astrabuduko neska honek. Euskarazko sormena indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko asmoz antolatu du udalak Lehen Ipuin Lehiaketa, eta laster argitaratuko ditu saritutako ipuinak.

Aitziberri patxadaz idaztea gustatzen zaio. Ipuina idazten hasi eta ez du berehala amaitzeko premiarik sentitzen. Astia due-nean idazten du, bere burua estutu barik. Iaz Eusko Jaurlaritzak deitutako idazlanen sariketa irabazi zuen eta horrekin batera New York-erako bidaia. Duela bi urte ere

beste sari bat irabazi zuen: BBK saria. Ikusten denez, Aitziberrek etekin ona atera die sariketei eta badu nori eskerrak eman. Irakasle duen Karmele Uriak zirikatu du eta bultzada eman dio daukan gaitasun eta trebetasun hori lantzeko. Han-hemen izaten diren sariketa guztien berri ematen die Karmelek ikasleei eta, bereziki, idazteko taxu ona daukatenei.

Hasiera batean, erdarazko idazlanekin lortu bazituen sariak, oraingoan euskaraz lortu ditu eta aurrera pausu handia izan da, Astrabuduko BHI ikastetxean hirugarren mailan ari den ipuin asmatzaile honentzat. Beste ipuin bat prestatzen omen dabil egunotan, baina kirol zaletasunari ere tartea egin nahi dionez, patxadaz doa. Water-polo egiten ari da Leioan, atletismoa Erandioko Atletismo Taldean eta, tarteka, ipuinak asmatzen Astrabudun. m

Iaz Eusko Jaurlaritzak deitutako idazlanen sariketa irabazi zuen Aitziber Ortega



LANPOSTUAK BETETZEKO DEIALDIA

Erandioko udalak hainbat lanpostu betetzeko deialdiak prestatu ditu eta laster zabalduko da eskaera-orriak aurkezteko epea. Besteak beste, 6 administrari, 5 udaltzain, peoi bat eta Euskaltegiko irakasle bat hartzekotan dira. Peoi lanpostua betetzeko izan ezik beste guztietarako ezinbestekoa da euskara jakitea, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna jarri diete eta. Badakizue, interesatuta bazaudete, jo Erandioko Udaletxera.

AHOBI SARI BAT BERBOTS-ENTZAT

Berbots, euskara taldeak pozik jaso du Algortako Bertso Eskolak urte amaieran emandako Ahoabi saria. Eskualde mailan bertsolaritza sustatzearren nabarmendu dela eta aipamena egin dio ALBEk. Formatu desberdinetako 3-4 saio antolatu ohi ditu urtero Berbots-ek Erandion, bertso zaletasuna suspertzeko eta euskal giroa kaleratzeko asmoz. Ikus-entzule kopuru polita biltzen du batean eta bestean, eta ea epe laburrera, erandioztarren bat daukagun Bertso Eskolan.

AGENDA

Inauteriak

Otsailaren 15ean, Astrabudun:
Altsasuko inauteriak Trabudu dantza taldearen eskutik

Mendi irteerak

Otsailaren 24an: Montemayor (Hereña): Erandioko Mendigoizaleak.
Galdaramuino (Eibar): Atxazpe mendi taldea

Krosa

Otsailaren 24an:, Jorge Blancoren omenezko herri lasterketa

Ikastaroak

Otsailean hasiko dira Erandioko Emakumeen Elkarte Soziokulturalak antolatutako zenbait ikastaro:
1.- Informatika ikastaroak
2.- Autodefentsa ikastaroak

BETIMU

Betimu programaren grabazioa Erandion, otsailaren 14an.

Basaki transmetal leioarra

Leioako Basaki **taldeak** bere bigarren **maketa** grabatu berri du

“Beti susmatzen da disketxeen arriskatzeko gogo eza”



Basaki-ko kideak: Natxo, baxua eta ahotsak; Alfonso: kitarra; Kyril, bateria eta Iker, kitarra eta ahotsa.

San Bartolome auzoan duten entsegu lokalera joan ginen. Bertan Natxo, Iker, Kyril eta Alfonso zain genituen. Lau gazte hauek trans-metal estiloko musika egiten dute euren eraginak argi geratu zaizkigu lokaleko paretei begiratzean. Izan ere, Metallica, Sepultura, Su ta gar... eta antzeko taldeen posterrek estaltzen dituzte hormak.

—**Maketa berria orain dela gutxi...**
—Iker: gure bigarren maketa da. Aurrekoa estudioan grabatu ahal izan genuen, baina oso garestia ateratzen da. Horregatik bigarren hau lokalean bertan grabatu dugu.
—Alfonso: Batez ere disketxeetara bidaltzeko da eta euren erantzunen zain gaude oraindik. Lehenengoa, adibidez, irrati libre pilo batera bidali genuen, kontzertu eta tabernetan saldu zena.
—Kyril: Dena den, atera genituen 500 kopiak jada agortuak daude.

—Hain basatiak zarete taldeari “Basaki” izena jartzeko?
—Natxo: Hasiera-hasieratik erabaki genuen izen hau jartzea. Musika gogorra egin behar genuenez ondo geratzen zen. Basaki. Fonetikoki ondo dago eta motza da.
—**Noiztik da hasiera-hasieratik?**
—Iker: Kyril eta biok 14 edo 15 urterekin bertsioak egiten hasi ginen, hau da, orain dela zazpi urte. Geroago gitarra eta bajista bat hartu eta talde bat osatu genuen, baina hau berehala desegin zen. Gero, Natxo eta Alfonso etorri ziren.
—Natxo: Gure lehengo kontzertua 96ko San Juanetan eman genuen eta ordutik 70 inguru izan dira.
—**Norekin eta non jo duzue?**
—Iker: Orain gogoratzen ditudanak: Joxe Ripiau, EH Sukarra, Betagarri...
—Alfonso: Baita Metallica eta Sepultura rekin ere, hemengoak, Algortakoak direnak (barreak).

—Egun hasi berriak zareten taldeok oztopoz beterik duzue bidea. Hemen, Euskal Herrian, diskoetxeen aldetik zein herrera josatzen duzue?
—Kyril: Zaila da hemen eta edonon.
—Iker: Azken finean diketxeak euren negozioari begira daude. Tamalez musikan ere merkatuko legeak nagusi dira eta ondorioak hor daude.
—Natxo: Disketxeek ez diote enpresa izateari uzten. Neurri batean, behintzat, ulergarria da. Baina beti sumatzen da disketxeen arriskatzeko gogo eza.
—**Agian zuen musikak galdu du bere garaian izandako arrakasta...**
—Natxo: 90. hamarkadaren hasieran musika estilo hau oso komertziala zen, batez ere Metallica eta hemen Su Ta Gar bezalako taldeen eskutik. Baina gaur egun horrela ez bada ere ez diogu musika hori egiteari utziko. Gustatzen zaigu.
—**Egun boladan dagoen musika elektronikoa eginez gero...**

—Iker: Badirudi orain musika elektronikoa egiten ez baduzu ez duzula ezer egiten. Gu ez gara mugatzen, edozertara irekiak gaude. Adibidez, gure bigarren maketa hau ordenagailuz grabatu dugu.
—Alfonso: Guretzako musika elektronikoa baliagarria da bitarteko bezala, ez helburu moduan.
—Natxo: Niretzat, musika sentimenduen islada da. Horregatik ez dakit makina batek noraino adierazi dezakeen hori guztia.
—**Hemendik aurrera zer?**
—Alfonso: Estudio batean sartu, disko bat grabatu eta disketxe batek banatzea gustatuko litzaiguke. Azken finean hori da edozein taldek duen ametsa. m

Harremanetarako: 617347750
basakitaldea@euskalerrria.org



Ezkerrean, saritutako argazkia. Goian, Miguel Angel Vereda

Argazki saritua Leioako lehiaketan

Miguel Angel Veredak eskuratu zuen herriko egileen argazkirik onenaren saria

Joan den urrian, Leioako udaletxean, iazko Fotografia Lehiaketaren sariak banatu zituzten. Sarituen artean, Leioako bakarra Miguel Ángel Vereda Florido izan zen. Miguel Ángelek herriko egilerik onenari emandako saria irabazi zuen “El abrazo de la sogá” zuri-beltzez egindako argazkiari esker. Saria diploma bat eta 30.000 pezeta izan zen. “Birritan aurkeztu naiz

txapelketa honetara eta beste behin Gijonen egin zen beste batera baina hau izan da irabazi dudana lehenengo saria; espero ez nuen saria, maila oso altua zen eta”, kontatu zigun Miguel Ángelek.
Argazkilari profesionala ez den arren, zaletasun handia du eta sarritan ateratzen da kalera bere argazki makinarekin. “*Kamara nire lagunik zintzoena da, baina sari*

hau eman zidaten arte argazki gehiegi egiten nituela pentsatzen hasita nengoen, ez nekien zuzen ote nenbilen. Orain lortutakoak pilo bat animatzen nau”. Eta irabazitakoa ez da gutxi, Miguel Ángelek pasa den urrian egindako argazkia, lerro hauen gainean ikus dezakezuena, lehiaketara aurkeztutako onenen artean aukeratu zuten epaimahaiko kideek. m

SG THE SECRET GARDEN Kiromasajista: Ana M. Blanco Ima³Esteticien: Susana Gragera		SG
SOLARIUM 36 HODI EKOLOGIKO + AURPEGIRAKO HIGIENE OSOA	MASAJEAK TRATAMENDUAK 3 TERAPEUTIKOA-LASAIGARRIAK / ANTIZELULITUKOA- ERREAFIRMATZA ERREFLEXOLOGIA / DRENAJE LINFATIKOA	Natura Bissē DIAMOND azalerako bitxia
—DEPILAZIO ZERA. Gorputz tenperatura —DEPILAZIO ELEKTRIKOA. Elektrologo diplomatua —DEPILAZIOA LASER —AURPEGIRAKO TRATAMENDUA —KUTISAREN GARBIKETAK —MIKROPIGMENTAZIOA ETA TATUAIA	—BEKAINENTZAKO TINTE ETA PERMANENTEA —MAKILAJEA (ETXEAN) eskatu ordua! —KOLOREZKO KOSMETIKA 120 m²-zure zerbitzura! —GIMNASIA PASIBOA —KONPLEMENTOA	
eta orain... <i>fisioterapeuta diplomatua... traumatologia, kirol fisioterapia, erremautologikoa...</i>		
Algortako etorbidea 106 • 94 460 62 01 • 48990 ALGORTA		

Judoa edo sahatsaren adarra

Leioako Arte Martzialen taldetik Bizkaiko **txapeldunak** atera dira, baita Espainiako lehiaketetan parte hartu duten hainbat **lagun** ere

Orain dela hamahiru urte Leioako Arte Martzialen taldea sortu zen. Judoa, defentsa pertsonala eta taekwondo irakasten zaie haur zein helduei. Judoa ez da futbola bezain ezaguna, ezta aikiroa bezain ezezaguna ere. Kirol hau hurbiletik ezagutzeko irakaslea den Javier Cerrilorengana jo genuen.

—Nola definituko zenuke judoa?
—Judoaren bitartez giharren harmonia zein nerbioen oreka egonkorra lor daiteke. Edonork egin dezake; bakoitzak behar duen neurrian ikasi beharko du, ordea. Lehiatzeko kirola da judoa, defendatzeko balio duen arma; baina horretaz gain, umeei konfiantza eta lasaitasuna ematen die. Judo norgehiagokak gogorrak izan ohi dira, baina gizalegezkoak ere badira. Horrela hainbat gazteri barruan duten agresibitatea kanporatzen laguntzen die. Kirol osoa, erabilgarri eta intelijentea da eta era berean, hezitzailea eta intelektuala.
—Baina bakarrik haur eta nerabeentzat egokia al da?
—Ez, noski. Adibidez Leioako taldean bost urtetik hasita 80 urtera arte praktika daiteke; dena den oraindik ez da animatu 80 urteko inor. Helduak, hogeita hamar urtetik gorakoak-eta, defentsa pertsonala, ariketa egitera eta sasoiari egoteko etortzen dira. Bakoitza helburu batekin etortzen da. Izan ere, gazteek hori guztia egiteaz gain lehiaketetan parte hartzen dute. Esate baterako, Leioako taldetik Bizkaiko txapeldunak atera dira, eta Espainiako txapelketetan ere parte hartu dute.
—Askotan, ikastetxetik kanpoko ekintza hauek ez ote dira gurasoak euren umeengandik “askatzeko” modua?



Judoak zera irakasten digu: indarrari ez dagoela indarrarekin zertan aurre egin behar

—Denetarik dago. Saiatzen gara haurrak kirol hau gustura egin dezaten motibatzen. Horretarako, adibidez, gauzak ondo egiten badituzte puntuak ematen dizkiet edota kurso bukaeran diplomak. Nik uste dut txikitan bi urtez kirol hau praktikatu behar-ko litzatekeela. Beharrezkotzat jotzen dut, kanpoan egiten ez dutena hemen egiten dutelako. Halaber, diziplina eta esnatzeko bidea izan daiteke. Hedabideek futbolari garrantzia ematen diote eta horregatik dena polarizatuta dago. Baina nik neureari eutsiko diot.
—Baina biolentzia ez ote du bultzatzen?
—Arte martzialetan ezin da dena zaku berean sartu. Judoa defentsarako filosofia bat da, eraso beste kontu bat da. Hain zuzen ere, defentsa pertsonala judoaren aldaera bat da eta guztiz legitimoa dena gure burua babesten ikasteko. Hau hone-
la da gaur egun gure gizartearen gertatzen

dena gertatzen delako. Biolentzia hor dago eta guk ez daukagu beste biderik hor dagoenari aurre egitea baino, alegia, gure buruak babestea. Guk aplikatzen dugun lema honakoa da: zeozer gertatzen bada, geuri ez dakigula gertatu. m

SAHATSAREN KONDAIRA

Judoan “Sahatsaren kondaira” hartzen da abiapuntutzat. Kondaira honek dio elurra ari denean haritzen adarren gainean erortzen dela eta pisuaren ondorioz adar horiek puxkatu eta erori egiten direla. Sahatsaren adarre-
rek, aldiz, ahulagoak ematen badute ere, elurrez betetzen direnean makurtu egiten dira, elurra astindu eta berriz ere bere izaera berreskutzen dute. Istorio honen ikasgaia honako hau da: indarrari ez dagoela indarra-
rekin aurre egin beharrik; aitzitik, bestearen indarra norberanari gehitzeko erabili behar da. Bestela, handiak irabaziko luke beti.

Niamh Parsons folk abeslari irlan- darraren kantaldia Lamiako Antzokian

Otsailaren 16an Lamiako Antzokian arratsaldeko 8:30etatik aurrera, Niamh Parsons, abeslari irlandarrak kontzertua eskainiko du. Sarrerak Leioako Kultur Etxean eskuratu daitezke 5 euroren truke. Niamh, Irlandako ahotsik ezagunetarikoa bat bihurtu da azkeneko urteotan egiten duen folk musikari esker. Dublinen jaio eta hasi zen eta ahizpa eta aitarekin ikasi zuen musika. Bere lehenengo emanaldiak Dublineko tabernetan eman zituen eta handik lasterrera “Killer” musika taldean sartu zen. Ordutik beste hainbat musika talderekin ibili da, besteak beste “Waterboy”, “Loose connections” eta “De Dannan” taldeekin. Gaur egun, “Arcady” taldeko kidea da eta haien azkeneko diskoan parte hartu zuen. Baina horrez gain, Niamh-ek beste lau disko argitaratu ditu berak bakarrik; “Loosely connected” 1992an, “Loosen up” 1997an, “Blackbirds and Thrushes” 1999an eta “In my prime” 2000an. Azkeneko lan honi esker



Urteko folk kantari onenetarako izendatu dute Niamh BBC-k antolatzen duen lehiaketan

Urteko Folk Abeslaririk onenetarako izendatu dute BBC-k ematen dituen sarietan. Bere diskoa ere Urteko Diskorik Onenetarako hautatu dute. Esan bezala, leioarre-
rek eta nahi duten guztiek, Niamh Parsons eta bere azkeneko eta betiko lanak entzuteko aukera edukiko dute datorren 16an, arratsaldeko 8:30etatik aurrera Lamiako Antzokian. m

AGENDA

Lehiaketak

Otsailaren 15ean, Amodiozko gutunen 3. lehiaketaren sari banaketa.

Irteerak

Otsailaren 15-17, irteera elurretara.

Erakusketak

Otsailaren 18-28, Udal tailerreko ikasleek egindako zaharberrikuntzak Sakonetan.

Zineforuma

Sabino Arana Kulturgunean Otsailaren 12an, arratsaldeko zortzietan, “Ed Wood” Otsailaren 19an, arratsaldeko zortzietan, “Sleepy Hollow” Otsailaren 26an, arratsaldeko zortzietan, “Bederatzigarren atea”

Informazio gehiago:

Leioako Kultur Etxera
94 480 46 60

EUSKARAREN TELEFONOA

Leioako Euskara Zerbitzua: **94 400 80 44**



BILBO MICRO

1982az geroztik
soluzio infor-
matikoak

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoa: 4230213

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIE

RRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

Harri estimatua Berangokoa

Bilboko udaletxea, **Arriaga** eta Aldundiko jauregia besteak beste Berangon mendeetan zehar martxan egon diren **harrobietatik** ateratako harriarekin egin zituzten, oso harri **estimatua** zen Berangokoa

Goain aipatutako eraikinak ez ezik, Berangoko hareharria baliatuz egin ziren Uribe Kostako hainbat eliza: Algortan, Trinitarioak eta San Inazio elizak; Berangoko Santa Ana basiliza; Leioako eliza...

Askotan ikusi ditugu Pozozabale bidean edota Seiherri bidean dauden harrobi txiki horiek. Irakurle batzuk, agian, martxan ere ikusiko zituzten eta gogoratu ere egin-go dute zein eraikin egiteko erabili zituzten hango harriak. Beste askok, ordea, ez dituzte ezagutu eta jakin ere ez dute jakingo hareharri harrobi hauek Bizkaia osoan izan zuten ospe ona.

Bada, Arenaza, Artetxute, Arabeta, Iturrizarre eta abar, eta bereziki, Arrikapela, Urtxubi eta Arrigunaga harrobiak, Berangon mendez mende funtzionatzen egon, eta duela berrogei bat urtera arte, Bizkaiko eraikin garrantzitsu ugari egiteko beharrezkoa zen harria eman duten harrobiatariko batzuk ditugu.

Hauen ustiapen probetxugarriak, jakina denez, berangoztar asko hargintzaren munduan lan egitera bultzatu zuen. Eta ez herrikoak bakarrik, Getxotik eta inguruetatik ere hargin ugari hurbiltzen zen beharra harrobi hauetara.

XVII. mendearen hasieran jada, Juan Arrarte, Juan Sustatxa eta Pedro Basarte berangoztarrek Leioako eliza egiteko beharrezkoa zen harria eramateko konpromisoa hartu zuten; horrela adierazten zuten hori aurkitutako eta 1620. urtekoa den dokumentu zahar batean. Harri hori Kukuola, Artebakarra eta Arrigunagako harrobietatik atera zuten. Hargin hauek izan ziren, halaber, baina Arrikapela harrobiko harria erabi-



Lehengo harrobien arrastoak gaur egun errez ikusi daitezke Berangon gaur egun

liz oraingo honetan, gure herriko Santa Anako basiliza egin ahal izateko behar adina harri atera zutenak.

Ordutik aurrera, eta dokumentu ugari horren adierazle dira, herriko harrobiatariko hareharria oso ospetsu bihurtu zen eta hainbat eraikin ezagun eta garrantzitsu egiteko erabili zuten. Horien artean,

“Mendeetan zehar berangoztarrek eta inguruko herrietako lagun askok hargintzan egin zuten behar”

Bilboko Bankuko eta Deustuko Unibertsitateko eraikinak, Algortako Trinitarioen elizako dorrea, San Inazioko eliza, hainbat dirudunen txaletak, eta abar; baita lehen aipatutako Arriaga antzokia, Bilboko udaletxea edota Bizkaiko Foru Aldundiko

jauregia ere. Ahaztu barik, herriko eliza, hilerria eta Santa Ana basiliza ere bertotik ateratako harriz eginda daudela.

Ez da harritzekoa, beraz, mendeetan zehar hainbeste berangoztarrek (eta inguruko herrietakoek ere) lan honetan jardun izana. Gure harrobietako hareharria benetan estimatua izan da.

Egun, harrobi hauek guztiak martxan iraun ez arren eta nahiko baztertuta eduki arren, ez genuke ahaztu behar gure herriko historian izan zuten garrantzi handia. m

MANUEL AZKARRAGA REGIL-EK HONAKO HAU ZIOEN 1885ean:

“Son muy apreciadas las canteras de piedra sillería areniza que radican en jurisdicción de esta anteiglesia [Berango] y de las cuales procede la mayor parte de la que se emplea para la construcción de los edificios en Bilbao...”



Aurten laugarren urtez antzetzuko da maskarada Berangon

Zuberoako maskarada

Martxoaren 3an, eta Berangoko Udalak antolatuta, Otxandategi dantza taldeak Zuberoako maskaradaren antzezpena egingo du

Duela hiru urtetik hona, inauteri garaia helden denean, Berangoko Udalak Zuberoako maskaradaren antzezen txiki bat antolatzen du. Urtero legez, ikuskizun hau egitea herriko Simón Otxandategi dantza taldeari egokitu zaio, eta bai gustura egin ere, berangoztarroi Euskal Herri osoko dantzak ezagutarazteko aukera baita hau.

Aurtengoa laugarren aldia izango da eta aurreko urteetan, maskarada herriko frontoian egin izan badute ere, aurten herri osoan zehar egingo dute. Erabaki hau Udalak eta Otxandategi taldeak berak hartu dute; badakitelako jendeari, askotan, astunegia iruditzen zaiola frontoi batean dantza ikuskizun oso bat ikustea.



Zuberoako maskarada

Jai girorako eta inauterirako antzetzte komikoa da. Bertan, komunitate osoak hartzen du parte eta dantza eta musikaz lagundutako funtzio antzekoak egiten dituzte, kalez kale. Pertsonaiak (Zalmazain, Kauterak, Txorrotxak, Kantiniersa...), Euskal Herrian ezagunak diren ofizio jakinetakoak dira eta bi taldetan daude banatuta: gorriak (bertako jendearen irudia) eta beltzak (atzeritarren irudia). Egun, maskarada nahiko laburtua dago eta hiru zati nagusitan banatzen da: Barrikada, Branlia eta Ofizioarena.

Martxoaren 3an, Otxandategi dantza taldeak, aipatu zatietatik lehenengoa soilik aurkeztuko du. Zati honetan, antzezleak herrian barrena ibiltzen dira Arribada doinua lagun dutela, eta leku eta etxe nagusietan dantza egiten dute, janari eta edariren truke.

Bada, Otxandategi dantza taldeko kideek Berangoko kaleetan zehar ibiliko dira, musikaz eta zanpantzar joaldunen zintzarri handien hotsaz lagunduta, euren dantzak eta inauteri jantzi dotoreak guztioi erakutsiz. Aukera paregabea dugu beraz, ikuskizun ederra den Zuberoako maskaradaz gozatzeko, herritik bertatik irten barik. Ez ezazu galdu! m

Euskal Herriko



Bestelako gaiak

Drogak
Politika
Bidaia
Osasuna
Sexualitatea
Munduko literatura

liburutegia

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79



basurto
algorta

telletxe 15, algorta
T: 460 71 62 - 460 42 44

foto
xabier
argazkiak



Doctor Landa z/g
Tfno. 94 676 03 09
SOPELA

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

350 M²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4

ALGORTAKO AZOKA

48990 ALGORTA

TF. 94 491 18 82

erakusketak / antzerkia / dantza

ALGORTA

[berango]

Elkartasuna Sahararekin

Azkeneko urteetan egindakoari **jarraituz**, Berangoko Udalak **jakiak** bidaltzeko eta Saharako haurrak udan etortzeko kanpainak **martxan** jarri ditu

Orain dela urte bi Berangon egondako Saharako umeak dibertitzen

Aurreko urteetan gertatu izan den legez, Berangoko Udalak, mendebaleko Saharako herritarrek laguntzeko kanpainari ekin dio aurten ere. Laguntza hau Tindufeko kanpamenduan bizi diren lagunei jaki iraunkorrak bidaltzean datza (arroza, atuna edota azukrea, hain zuzen ere).

Produktu hauek guztiak Afrikako iparraldera eramango dituen karabana bidean dago jada, aurreko hilaren bukaera aldean irten baitzen. Ordura arte, herriko lagunek eta enpresek aukera izan zuten jaki bilketa honetan euren laguntza emateko. Udala bere pozik azaldu da kanpaina honetan herriak hartu duen konpromisoa eta eman duen laguntzagatik.

Saharako haurrak udan

Aldi berean, Fronte Polisarioak Euskal Herriko udalerriei urtero egiten dien eskaerari erantzunez, Berangoko Udalak Saharako umeak herrira etortzeko kan-

paina ere jarri du martxan. Kanpaina, hango haurrak hona etortzean eta bertan hilabete bi pasatzean datza. Horretarako, herritarren erantzuna, oraingo honetan ere, ezinbestekoa da; umeak, hartzeko prest dauden herriko familiekin bizitzen egongo dira.

Halaber, eta familia bakoitzak euren etxean egongo den haurrarekin egin ditzakeen irteera edota jardueraz gain, ingurura datozen gaztetxoek monitore bat izango dute; harekin ere, eta euren lagunekin batera, hainbat ekintza eta txango egingo dituzte (hondartzara, igerilekura...). Udalak haurren bidaia eta aseguruaz arduratuko da.

Kanpaina honen helburua, neurri handi batean, Saharatik etorriko diren haurrek, udako hilabete bi horietan elikatze orekatuagoa izatea, atsedean hartzea eta izan ditzaketen osasun arazoak sendatzen saiatzea da, eta horretan guk geuk, edota zuk zeuk baduzu zeresanik. m

“Herritarren laguntzaz bildutako jakiak Saharara eramango dituen karabana bidean da”

[berango]

INAUTERIAK PILOTALEKUAN

Otsailaren 9an, Berangoko Kultur Etxeak, inauteriak zirela eta, umeentzako jaialdia antolatu zuen herriko pilotalekuan. Inauteri ospakizun hau bostetan hasi zen eta zazpiak arte, haurrak tailerrak izan zituzten, makilatzen eta maskarak egiten ikastea helburu zelarik. Ondoren, “Telmah” taldearen eskutik, animazioa eta jaia egon zen, umeek dantzan eta saltoka ibil zitezen

AGENDA

Erakusketak

Otsailaren 4-17, erakustaretoan: **Gorka Lejarcegi**ren “Argazkiak”. Otsailak 18 martxoak 3, erakustaretoan: **Elena López de Uralderen** “Akuarelak”.

Umeentzako zineak

Otsailaren 10ean, areto nagusian, 17:30etan: **“El Grinch”**
Otsailaren 24an, areto nagusian, 17:30etan: **“Bostak arriskuan, eremu misteriosuan eta ibilaldian elkarrekin”**

Ludoteka

Txiki-ludoteka 3-8 urte bitartekoentzat (euskaraz). Lanegunetan, 16:30-18:30. Tailerrak, eguenero: opari poltsak, erlea, plastilinazko eskumuturrekoak...
Ludoteka 9-14 urte bitartekoak. 18:30-19:30. Tailerrak eguenero: maskarak, karpeta, begi magikoa...

Informazio gehiago:
Berangoko Kultur Etxera
94 668 21 43

UK ALDIZKARIA

hilabetero etxean jaso gure baduzu deitu

94 491 13 37

VILLABOTAS

JATETXEA

Menu merke eta bariatuak

Espezialitateen karta

Giro atsegina

T: 430 43 33

Villaondoeta 2, ALGORTA

I

I aki

Bitxitegia

Ω

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte

T: 4302345

Algorta

Curso2001/2002 ikasturtea

euskara

Ven y ap ntate!!

Maila guztiak

eta ordutegi

desberdinak

Algortako Etorbidea 104 zbk

48990 Algorta - GETXO

Tlf: 94 460 66 71

e-mail: j.a.agirre@euskalnet.net

HABEk diruz lagunduta

24 UK

UK 25



Atzerritarrak gurean

Euskal Herria ez da paradisia baina asko eta asko dira gugana hurbiltzen diren atzerritarrak behar egiteko asmoz; batzuetan lan hobe baten bila etortzen dira eta beste askotan miseriatik alde egiteko itxaropenarekin eta edozein gauza egiteko prest. Beti ez dute helburua lortzen, baina hainbat dira gure artean integratzen direnak.

Testuak: **Javier G. del Herrero** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Gero eta gehiago dira gurera etortzen diren atzerritarrak bizitza baldintza hobeen bila; *La polla records* musika taldearen kanta batek esaten duen bezala, inoiz ikusi ez duten, baina hainbat aldiz imajinatu duten paradisuaren bila. Batzuek lortzen dute baina gehienek ez, zoriturrez; eta askotan gure “paradisu” honetako lanik txarrenak eta okerren ordainduta daudenak onartu behar izaten dituzte hemen gelditu ahal izateko; beraien infernutik atera ahal izateko. Badaude “goi mailako” atzerritarrak ere; gurea baino aurreratuago dauden herrialdeetatik hurbiltzen zaizkigunak lan arrazoengatik,

baina gutxi dira. Hala ere, ez gara gu izango konponketa zaila duen arazo hau aztertzeaz arduratuko garenak. Erreportaje honen helburua askoz apalagoa da. Jakin nahi izan dugu nortzuk diren gugana hurbildu diren lagun hauek, zergatik egin zuten, zer aurkitu nahi zuten eta ea lortu duten ala ez; zelan bizi diren gure herrialdean, nolakoak diren euskaldunekiko harremanak, zelan ikusten gaituzten eta ea gustura dauden gure artean. Seguru asko haien erantzunak gure gizartearen islada izango dira eta haien esaldietan, lerro artean irakurriz gero, gure izateko era aurkituko dugu. ^m

Idris A. Edirwah

“Euskalduna bere historiaz eta izaeraz harro sentitzen den herria da. Bestetik, euskaldun bat lagun baldin baduzu, betirako laguna duzu”

ADINA: 30 urte. NAZIONALITATEA: Libiarra. LANBIDEA: Garraio teknikaria. 19 urte hemen

Hemeretzi urte pasatu dira Idris A. Edirwah libiarra Euskal Herrira etorri zene- tik eta asko izan dira ordutik hona gertatu zaizkion gauzak. Libiako gobernu-ko beka batekin etorri eta nautika ikasketak bukatu zituen hemen. Neska euskaldun batekin maitemindu eta ezkondu egin zen. Gaur egun jatorri libiar duen euskalduna sentitzen da. “*Hasieratik euskal jendeak harrera ona egin zidan eta inoiz ez dut arazorik eduki etorkina izateagatik. Hizkuntza ikastea apur bat kostatu zitzaidan, noski, baina horrez gain, ez nuen integratzeko problemarik eduki*”.

Euskal jendearen izaera eta hemengo ja- naria dira gehien gustatzen zaizkion gauzak baina hemengo egoera sozio-politikoak asko

kezkatzen zuela nabaritu genuen. “*Oro har, bortizkeria da euskal gizartetik gutxien gusta- tzen zaidana*”.

Gu definitzeko eskatu diogunean, Idris- ek ez du inolako zalantzarik: “*Euskalduna be- re historiaz eta izaeraz harro sentitzen den he- rria da. Euskaldunak beraien adiskideen adis- kide dira; bihotz handiko jendea. Euskaldun bat lagun baldin baduzu, betiko laguna duzu*”.

Minutu batzuk baino ez dira behar, Idris A. Edirwarh guztiz integratuta dagoela ikusi ahal izateko. Euskara ikastea da falta zaion azkeneko urratsa. “*Saiatu nintzen eta, gaine- ra, ez zitzaidan bereziki zaila irudit, baina utzi behar izan nuen denbora eta pizgarri fal- tagatik*”.



Facundo Aznares

“Banekien herri hau ondo ezagutu ahal izateko euskara ikasi behar nuela”

ADINA: 29 urte. NAZIONALITATEA: Argentinakoa. LANBIDEA: Kazetaria. Duela urte bi heldu zen.

Facundo Aznares-ek urte bi darama- tza Euskal Herrian eta hona etorri baino lehen beste sei eman zituen Madril- en. Han, harrigarria bada ere, euskara ikasten hasi zen Hizkuntza Eskolan eta Euskal He- rria zapaldu zuenerako zer bait behitzat

bazekien. Hona heldu bezain pronto Al- gortako AEKn eman zuen izena eta dago- eneko zortzigarren mailan dago. Gaur egun, gure hizkuntza badakiela esan gene- zake. “*Banekien herri hau ondo ezagutu ahal izateko euskara ikasi behar nuela*.”

Musikazale amorratua naiz eta Delirium Tremens, Negu Gorriak eta, oro har, hemengo rock taldeak izan ziren euskara ikasteko grina eragin zidatena. Betidanik jakin dut egunen batean hona etorriko nintzela. Aitak sei urte daramatza hemen eta biok maite dugu Euskal Herria”.

Facundo kazetaria da. Haiseran Hilar- gi Records diskoetxean ibili zen lanean eta gaur egun “Resumen latinoamericano” aldizkarian idazten du. Guztiz integratuta sentitzen da Euskal Herrian (inoiz ez duela arazorik eduki atzerritarra izateaga- tik aitortu zigun), baina Argentinan dituen senide eta lagun- en falta nabaritzen du. Horretaz hitz egin genuenean Fa- cundo malenkoniatsu jarri zen eta bere begi alaiek barruan daukan tristura eta kezka adierazi zuten. “*Hango egoera oso la- rria da eta batzuetan zaila egiten zaigu hemen egotea han ditugun senide eta lagu- nak zelan dauden jakin barik*”.

Facundok badauka euskaldunei buruz- ko iritzi argi bat: “*Euskaldunak bereziak, gogor- rak eta lagun- en lagunak dira; nortasun berezia daukate. Horrez gain, zuen izaera harrigarria da, oso ezberdinak zarete. Batzuk ireki- irekiak diren bitartean, beste asko oso itxiak izan daitezke. Tartekorik ez dagoela ematen du askotan*”.



Maurice Piret

“Espainian nengoenean, herrialde honi buruz eta Euskal Herriko jendearen izaeraz luze eta ongi hitz egin zidaten. Entzundako guztia ea egia zen jakin nahi nuen eta hona etorri nintzen”

ADINA: 32 urte. **NAZIONALITATEA:** Belgijarra. **LANBIDEA:** apaintzailea. Duela hiru hilabete hemen bizi da.

Orain dela urte batzuk Mauricek etxe bat erosi zuen Espainako hegoaldean, Malagan. Han gure herrialdeari buruzko gauza onak entzun zituen eta hona hurbiltzea erabaki zuen. Malagako etxea alokatu eta ateratako diruarekin Euskal Herrira abiatu zen. *“Espainan nengoenean, herrialde honi buruz eta Euskal Herriko jendearen izaeraz luze eta ongi hitz egin zidaten. Entzundako guztia ea egia zen jakin nahi nuen eta hona etorri nintzen”*. Malagan hiru urte eman ondoren, Mauricek, orain hiru hilabete daramatza gure artean eta dagoeneko badauka euskaldunei buruzko iritzirik: *“Hemen inoiz ez dut inolako arazorik izan atzerritarra izateagatik. Jendea laguntzeko prest dago beti eta esan zidaten bezain jatorra eta atsegina da. Eta askoz langi-*

leagoa gainera. Nire uste apalean, espainiarrak euskaldunak baino faltsuagoak dira. Irribarre handiak erakusten dituzte etorkinen aurrean baina askotan benetakoak ez direla nabaritzen zaie”. Mauricek kontatutakoaren arabera, argi dago gustura dagoela gure artean eta luzaro geratzeko asmoa daukala. *“Euskaldun jendea berezia da benetan; kontrabadoregia askotan baina bere izakeraz harro sentitzen den herri bat zarete. Euskalduna nahi duena lortzeko borrokatzeko prest dagoen herri bat da”*. Mauricek euskarazko berba batzuek ere ikasi ditu: *“Badakit bat, bi eta hiru zenbakiak direla. Eta “gaur”, adios, esan nahi du ezta?”*. Borondaterik behintzat ez zaio falta belgiar jator honi. Orain letrak ordenan jartzea baino ez zaio geratzen”. m

Richard Winterbottom

“Euskal Herriko jendeak badaki ondo pasatzen”

ADINA: 41 urte. **NAZIONALITATEA:** Inglesea. **LANBIDEA:** Irakaslea. Duela 10 urte etorri zen

Herrialde ugari ezagutu ostean, Richard Winterbottom-ek Euskal Herrira etortzea erabaki zuen. *“Aspalditik ezagutzen nuen Euskal Herria; 1980an Iruñeko San Ferminetan egon nintzen eta ordutik banituen hona etortzeko gogoak”*. Esan eta egin zuen Richard-ek. 1991n Valentziatik Bilbora etorri zen. *“Gustukoa nituen hemengo obiturak, jendea, izateko era..., banekien nora nentorren eta zer aurkituko nuen hemen”*. Nahiz eta klimak pixka bat harritu zuen: *“Inglaterrakoa baino hobeia izaten den arren, eguraldia nik uste nuen baino aldakorragoa eta euritsuagoa da hemen”*.

Richar Ondarruko neska batekin ezkondua dago, Getxon bizi dira eta seme bi dituzte. Beraien etxean ingelesez eta euskaraz baino ez da hitz egiten. *“Umeak ikastolan hasi dira eta etxean, amarekin euskaraz eta nirekin erdaraz hitz egiten dute. Gaztelania telebistan eta kalean ikasiko dute”*, dio Richard-ek, eta arrazoa dauka. Bera, ordea, oraindik ez dago euskaldundua, nahiz eta berba batzuk badakizkien. *“Zoritxarrez, hemen bizi ahal izateko ez da ezinbestekoa zuen hizkuntza jakitea. Edonon konpondu zaitetzke gaztelaniaz eta hori erronka handia da”*. Baina euskalduna ez den arren, Richard euskaltzalea da. *“Zorte handia eduki dut. Nire emaztea hemengoa denez, inoiz ez dut inolako arazorik eduki lagunak egiteko, euskaldunak itxi xamarrek zaretela esaten duten arren. Ni neu, ordea, guztiz integratuta sentitzen naiz”*.

Richard-ek ere badauka iritzi argia euskaldunei buruz. Bere ustez euskaldunok badakigu ondo pasatzen eta lagunak lagunak gara. *“Euskaldunak, oro har, pertsona onak zarete. Euskaldun bat laguna baldin baduzu, badakizu lagun izango duzula. Beti esaten duzue pentsatzen duzuen eta, nire ustez, hori bertute handia da”*. m



Dietmar Wermke

“Bartzelonako lagunek zera esan zidaten, Euskal Herrian espainiar batek aleman batek baino arazo gehiago dituela”

ADINA: 30 urte. **NAZIONALITATEA:** Alemana. **LANBIDEA:** Trokeladorea. Duela bi urte etorri zen.

1997ko udazkenean Dietmar Wermke-k bere herrialdea utzi zuen eta Zaragozara abiatu zen lanera. Bere neskalagunak, alemana hura ere, Bartzelonan lan egiten zuen eta, horrela, elkar ikusi ahal izango zuten asteburuetan. Hori zen ideia, baina

harremana apurtu zen eta Dietmar bakar-bakarrik geratu zen ezagutzen ez zuen herrialde batean. Handik gutxira Euskal Herrira etortzeko aukera eskaini zioten. *“Lan baldintzak oso onak ziren arren, birritan pentsatu behar izan nuen. Espai-*

niako telebistetan kontatzen zutenaren arabera Euskal Herrian guda zibilean zeundeten eta oso arriskutsu zirudien hona etortzeak. Amak ere ez etortzeko aholkatu zidan, baina Euskal Herrira heldu eta handik gutxira kontatutako gehiena gezur hutsa zela ikusi nuen. Euskal Herria zoragarria da; itsasoa, paisaia, jendea... Zerbait txarra aipatu beharko banu bortizkeria aipatuko nuke, baina esan dizudan bezala, ez da espainiarrek uste duten bezain larria. Hemen bakoitzak nahi duena esan dezake inolako arazorik gabe. Adierazpen askatasuna Espainiako edozein tokitan baino handiagoa da”. Dena dela, bortizkeriaren arazoaz gain, Dietmar-ek beste zalantza batzuk zituen: *“Hona bidali nindutenean ez nekien arazorik edukiko nuen Euskal Herrian alemana izateagatik, baina Bartzelonako lagunek argi utzi zidaten hemen espainiarrak direla arazoak eduki ditzaketen bakarrak eta espainiarrak izateaz gain espainolistak badira gehiago”*.

Gaur egun Dietmar-ek bere lana galdutu eta langabezia kobratzen ari da. Gutxi falta zaio; baina, hala ere, ez dauka Euskal Herritik joateko asmorik (‘gero eta gutxiago’ dio). Beste lan baten bila dabil eta edozer egiteko prest dago hemendik alde egin behar ez izateko. Eta bilatzen duen bitartean, aleman alai honek orduak ematen ditu bere lagun berrieekin Sopelako tabernetan. Hori integrazioa! m



NABARRA

Euskal Herri osoan!

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

30 euro urte osoa (12 aldizkari)

948 22 71 25

nabarra@nabarrerria.com

“Etxe hauek gure izatearen sustraiak dira”, berbak zizelkatu zituen hargin batek Getxoko Andra Mari elizaren atzekaldeko horman aspaldian, azpian herrian zeuden baserrien zerrenda luzea: Joakinena, Matxikortiñe, Kortiñe, Lezeta, Perune... Gaur egun, askoz gutxiago dira zutik irauten duten baserriak eta irauten duten asko eta asko egoera tamalgarrian daude. Horren lekuko erreportaje honetan ikus daitezkeen argazkiak dituzue.

Baserriak

gure ondarea galbidean

Testua: **Javier G. del Herrero** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Baserriaren garrantzia handia izan da beti gure kulturari; baserriak bertan bizi direnei izena eman ohi die, sarritan etxearen izena abizen bihurtu izan da. Euskal Herriko nekazarien etxe hauetan, etxebizitza, korta eta biltegia elkartzen dira. Baserri bakoitzak bere nortasun berezia duen arren, etxe hauek eraikitze ezaguri batzuk betetzen dituzte; inklinazio gutxiko ur biko teilatuak, hegoaldera begira dagoen fatxada nagusia, sarrerako arkuak...

Eraikuntza hauek orain dela 500 urte baino gehiago sortu ziren eta hainbat denbora iraun izanak kalitate handikoak direla erakusten du (Europako etxe onenen artean daude). Hala ere, duela mende bat 45.000 ziren Euskal Herri osoan zeuden baserriak, baina azken urteetako erritmo berean desagertzen jarraitzen badute, 200 urte barru ez da eraikuntza hauetako arrastorik geratuko gure herrialdean.

Nahiz eta harria erraz lortu eta landu zitezkeen Euskal Herrian, gure herrialdean





MIKEL MARTINEZ



Duela mende bat 45.000 ziren Euskal Herrian geratzen ziren baserriak, baina azken urteotako erritmo berean desagertzen badira, 200 urte barru ez da eraikuntza hauen arrastorik geratuko



Lehenengo baserriak orain dela 500 urte baino gehiago sortu ziren. Hasieran, askotan, egurrezkoak baino ez ziren

Gaur egun baserri asko eta asko hutsik eta erortzeaz daude, herriko jendeak ahazturik. Gero eta gutxiago dira barruan bizitza eta giza beroa mantentzen dutenak. Baserriak desagertzeko arriskuan daude, bai, eta haiekin batera gure historiaren (Euskal Herriko historia) zati garrantzitsua. Hori gerta ez dadin eta etxe hauen berrikuntzaz arduratzeko, 1966an Pactcdhar elkarteak sortu zen. Gaur egun, baserriak ezin dira edonola zaharberritu edo konpondu: egin beharreko lanek faxadan eraginik izango badute, baimen berezia eskatu behar da eta horretarako

dosier teknikoa aurkeztea ezinbestekoa da. Baserriak zaharberritzeko badira bete beharreko beste baldintza batzuk. Eraikinen jatorrizko egitura eta estetika osotasunean errespetatu behar dira, eta egokitzen egingo bada, behar-beharrezkoa da jatorrizko material berberak edo, halakorik ezean, antzeko materialak erabiltzea.

Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta gaur egun baserrien desagertzea gelditzeko neurriak hartzen ari diren, erreportaje honenetako irudietan ikus daitekeenez, gure eskualdean behintzat, beranduegi izan daitekeela dirudi. Ala ez? Erantzuna

etorkizunak ekarriko digu... eta hori ezezkoa izatea espero dugu.

Hasieran genioen bezala, baserriak gure izatearen sustraiak badira, zer itxaron behar dugu bere izaeraren oinarria galtzen duen herri batengandik? m

01 Ormaza, Getxo / **02** Juliñe, Getxo / **03** Leioa / **04** Algorta **05** / Iberetxune, Getxo / **06** Ibergoko, Larra-basterra / **07** Maidaganbarri, Getxo / **08** Goñibarri, Getxo **09** Matxikortiñe, Getxo / **10** Boluntzarreta, Getxo / **11** As-trabudua / **12** Kortiñe, Getxo / **13** Iberberango, Getxo **14** Uribarri, Getxo / **15** Lezeta, Getxo / **16** Kukularra, Leioa **17** Basalbo, Getxo

Baserrien egoeraren inguruan

Josu Zubiaur*

EUSKAL HERRIAREN ikurra izateaz gain baserria Europako herri arkitektura mailan, bitxia da benetan lortzen dituen neurri eta kalitateagatik. Arkeologia alde- tik ere bitxia da benetan baserria. Hainbat etxe zaharren izena eta kokapena gorde ditu antzinako paperetatik gaur egun arte ia aldaketarik gabe. Andra Mari Elizaren hormetan hainbat baserriren izenak ditu- gu, Getxoko historiaren lekuko. Eta gaur egun arte XVI. mendeetatik iraun duten baserri bitxi eta gutxi horietatik, zutik baina jausten hasiak diren hainbat base- rriren egoera eskasaz nator amorruez eta kexaka honako lerro hauetan.

Hilero “Bizarra Lepoan” aldizkari za- harrean lerro batzuk idazten nituen Ge- txoko baserri zaharrei buruz. Eta txaletei lekua egiteko edo txaletetara arineketan ailegatzeko errepideak zabaltzeko base- rriak botatzen jarraitzen denez, lerro hauetatik egoera hori salatu gura dut. Beste barik baserri zahar horiek, marraz- teko gustuko ditut, lerro oker eta kolore ugari dutelako. Baina amaitzen ari zaizkit

“Zutik baina jausten hasiak diren hainbat baserriren egoera eskasaz nator amorruez eta kexaka honako lerro hauetan”

udalerrri honetan. Eta honezkero desa- gertu ez badira, edota zaharberritu dituz- tenean txalet bilakatu ez badira, hutsik eta tapiatuta aurkitzen ditugu gelditzen diren baserri ederrenak. Eta hemendik gutxira azkenetako batzuk, udalaren oni- ritziaz, behera botako dituzte.

Eta benetako balio historiko-artisti- koa duten baserriak behera bota, berez jausi edo betiko desitxuratu dituzte, eta argazki hauetan ikusten den egoera larian daude. Getxoko azken baserriak izanik ere, jarraitzen dugu behera jausten uzten edo behera botatzeko edo goitik behera edonola berritzeko behar diren baimenak emoten, XVI. mendeko etxeak turistak erakartzeko arrazoi ekonomiko nahikoa ez balira bezala.

Negurin orain dela gutxi erre zen *villa bat* (eta aldi berean eta gau berean,

barruan zituen zurezko elementu histori- ko-artistiko interesgarri guztiak kixkali ere) eta segidan arduratu zen udala berriz ere altxateko, konpontzeko eta hotel bihurtzeko egitasmoaz. Eta ondo derit- zot, baina iruditzen zait Getxoko azken baserri horiek ere badirela horrenbeste ardurtzeko eta zaintzeko patrimonioa. Eta, nahiz eta denetarako dirurik ez izan eta udala batetik aberatsa izan eta jeltza- lea izan bestetik, beharko luke baserriez gehiago arduratu, ez baita baserri zaha- rren izenak gorde ere kale berriak izen- datzeko. Hemendik gutxira eta Andra Mari auzoan ziur aski, baserriari zor zaion museoa egiteko euskal eraikuntza inteli- gente berriren baten beharrik ez izateko.

Soberan izango bagenitu bezala herrian XVI, XVII eta VXIII. mendeko etxe- ak edo XIX. eta XX. mendeetan egindako *villak* eta jauregiak.

Egia esan, hau guztia ez da harritze- koa ikusita Francoren garaietatik monu- mentu nazionalaren izenpean babesturik egon beharko zen Algortako Portu Za- harrearen egoera eta itxura. Antza, edo- nork aukera dezake arbasoek utzitako teilatuko zuloak konpontzeko zein teila mota erabili. Zer ez da, ba, egingo eta desegingo horrelako babesik ez duten etxeetan, baserri arruntetan, herriko baz- ter guztietan.

Eskuz egindako materialak, teilak eta koloreak dituzten Getxoko azkenetako baserriak ditugu hauek, eta hutsik dau- denez berauek erosteko eta konpontze- ko azkeneko aukera dago betiko desa- gertu baino lehen.

Edota nahi izango dugu Getxoko baserri zaharren zuri-beltzezko argazki zaharretako irudien erakusketa egin, turistak ekartzeko foiletoetan baserrien koloretako argazkiak banatzen dizkiegun bitartean?

Marrazkiak edo argazkiak egiteko merezi dutelako bakarrik, beharko geni- tuzke patrimonioaren izenean gorde baserri gutxi horiek desagertu baino lehen. Beraiekin batera betiko galduko da euren Getxoko hizkera, *euskerea*. Eta biak bere ezaugarri eta aberastasun guz- tiekaz gordetzea da herriaren ardura, ez bakarrik udalaren errua galdu badira. 4



Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak



begiraleuskaldunak
behar ditu...
...aisialdi ekintzetan lan egiteko...

...argibideak izenemateak>>>>>

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA
Itxas Gane. Karitatea 1, sotoa 10.bulegoa / Algorta (Getxo)
94 491 43 57 / bizarralepoan@euskalnet.net

Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen

irudiak aldatze lehia



argibideak

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA
Itxas Gane. Karitatea 1, sotoa 10.bulegoa / Algorta (Getxo)
94 491 43 57 / bizarralepoan@euskalnet.net

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak gaur egun duen irudia aldatzeko asmoa du, elkartearen izena aldatu barik.

- > **Saria:** 500 euro
- > Aurkezten diren irudiek “Bizarra Lepoan euskara elkarte” izena izan behar dute derrigorrez.
- > **Lanak aurkezteko epea:** martxoaren 4tik 15era izango da.
- > Aurkeztutako lanarekin **erakusketa** bat egingo da Itxas Gane etxean



etxean, hilabetero jaso nahi baduzu deitu

94 491 13 37
irakurlearente**telefonoa**

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Ameztzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / aldizkaria@euskalnet.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

[berbetan]

Bertsolaria, abeslaria, aurkezlea... Xabier Euskitze azpeitiarra euskararen aurpegirik ezagunetarikoa eta adin guztietako euskaldunentzako erreferentzia bihurtu da bere eguneroko lanari esker. Lanpetu xamar dabilen arren, “Sorginen laratza”ren aurkezle eta alma materrak denbora atera zuen Miramoneko estudioetan gure galderei arreta handiz erantzuteko, bere eguneroko saioa prestakuntzekin hasi baino lehentxeago.

Xabier Euskitze

Telebistako aurpegi atsegina

Testua: **Javier G. del Herrero** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—**Bertsolaria, aurkezlea, telebistako gizona... zer zara lehenago?**
—Ez daukat lehentasunik baina bertsolari aspalditik sentitzen naiz. Hamaika urte nituenerako konturatu nituen afizio ikaragarria neukala eta hamabost urterako eskolarteko txapelketa irabazi eta berehala hasi nintzen bertsolari sentitzen.

—**Txikitan bertsolari izan nahi zenuen?**
—Bertsolari izan nahi nuela ez nintzen konturatu izan nintkeela ohartu nintzen arte. Nik ez dut sekula bertso-eskolarik zapaldu, baina klasean euskarako gaian bertsolaritza aztertzen zen noizbait, zortzi-ko txikia eta handia sartzen azaldu ziguten eta errimak non joan behar zuen. Bertsoa egiteko agindu izan ziguten noiz edo noiz eta ni berehala konturatu nintzen besteek baino errazago egiten nuela. Eta gustatu

ere beti gustatu izan zait. Baina 15 urterekin eskolarteko txapelketan apuntatu nintzen arte ez nuen pentsatzen bertsolari izan nintkeenik.

—**Nolakoa zinen txikitan?**
—Nahiko mutiko aktiboa nintzen. Ez naiz sekula ikasle ona izan, baina ez aktiboa nintzelako, baizik eta nire ekimena gauza askotara bideratzen nuelako. Bolada batean gogoan dut gauza pila egiten nituela batera; solfeoa, pilota, judo, bertsolaritza... Beste mutiko askoren moduan, kirolzalea eta lagun artekoa nintzen.

—**Eta orain? Zeintzuk dira Xabier Euskitzeren akatsak eta bertuteak?**
—Nahikotxo eboluzionatu dudala uste dut, bestela seinale txarra izango litzateke. Nire bertutea, ezertarako gaitasunik bal-

din badaukat, komunikaziorako ahalmena daukadala uste dut. Hori txikitatik sumatu dudan gauza bat da. Eta akats bat aitortzekotan gauza berbera esango nuke; komunikatzeko arazoak. Batzuetan jendearekin intimatzea eta konfiantza hartzea kostatu egiten zait. Gero dezente lortzen dudala iruditzen zait, baina lehenbiziko pauso hori sarritan kostatu egiten zait.

—**Zelan eta zergatik hasi zinen telebistan?**
—Ordurako irratian nenbilen (oso gazte, 17 urterekin hasi nintzen Euskadi Irratian lanean) eta halako batean, 1987ko udan, telebistatik deitu ziguten esanez nahi zutela irratian genbiltzan gazteak telebistara joatea, bertan kasting bat egiteko programa bat aurkezteko jendea behar zutela, eta hara joan ginen. Kastinga egin ziguten eta aukeratutakoa ni izan nintzen.



Sorginen Laratza astelehenetik ostegunera ETB1ean gauero emititzen da. Argazkian, Xabier Euskitze platoan prestaketa lanetan >

[xabier euskitzegaz **berbetan**]

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Hasieran ez zitzaidan asko gustatu telebis-ta; irratitik nentorren eta han komunika-zioa askoz errazagoa eta azkarragoa da; zu zeu eta kontrolista bat nahikoa dira eta edozein aldaketatxo egiteko edo bat-bate-an edozein erabaki hartzeko askoz arina-goa da. Telebista, ordea, oso motela irudi-tu zitzaidan baina orain gustukoa dut.

—**Zelan sortu zen “Sorginen Laratza” saioa?** —Beno, nik hasierako pausoetan ez nuen zer ikusirik izan. Informatiboak utzi eta gero, niri eskaintza bat egin zidaten arra-tsaldeko talk-show deitzen zaien horietako bat aurkezteko eta gauzak argiagoak izan arte esperoan nengoen erdi oporretan eta

“Bertsolari izan nahi nuela ez nintzen konturatu izan nintekeela ohartu nintzen arte”

zein albiste ematen zizkidaten zain. Gai-nera, ez oso ilusionaturik ez nuelako ideia oso garbi ikusten. Halako batean Bingen Zupiriak, ETBko zuzendariak, deitu zi-dan eta talk-show-arena ahazteko esan zi-dan gaueko magazina aurkeztu ahal izate-ko. Nik banekien gaueko magazine hori zeinen eskuetan zegoen, zuzendaria eta zuzendariordea ezagutzen nituen eta baietz esan nion, bestea baino askoz tenta-garriago iruditzen zitzaidalako.

—**Saiorik ikusiena euskaraz, saritua azke-**

LABUR LABUR

Jaioterria : Azpeitia
Adina : 35 urte
Hautzaroko irudi bat : Azkoitiko Urrategi auzoan; Agirre eta Lasarte bertsolariak bertsotan eta ni, beste ikusle guztiak bezala, liluratuta ikusten.
Bertsolari bat : bi horiek, Agirre eta Lasarte.
Zaletasunak ezezagunik : Argazkilaritza. Beti izaten dut kamara bat aldean eta ikastaro ugari egin ditut.

neko Iparragirre Sarietan..., **hasi zinetene-an espero zenuten lortutako arrakasta?** —Nik hasieratik ilusio handia neukan eta zerbait polita egin genezakeela uste nuen. Itziar Azpeitia (zuzendaria) eta Jon La-marka (zuzendari ordea) lehenago telebis-tan eskarmentu handia daukan jendea da eta horrek niri aparteko konfiantza eta ziurtasuna ematen zidan. Gainera, lehen-dabiziko entsaiotik oso sentsazio onak izan nituen. Batzuetan berehala ikusten da kimika dagoela eta guk, Klaudio Landak eta biok, berehala ikusi genuen, nahiz eta kontraste handikoak izan. Berehala hasi ginen horretaz jabetzen. Hortik aurrera, ez genuen pentsatzen hiru urteko epeari begira

—Bertsolari izan nahi nuela ez nintzen konturatu izan nintekeela ohartu nintzen arte

lan egin behar genuenik. —**ETB1eko programarik ikusiena izate-ak presio gehiago dakarkizue?** —Bai; presioa beti izan dugu, hori ezin da ukatu. ETBk apustu handia egin zuen, lan talde handi bat jarri zuen martxan eta emaitzak lortzeko ardura gurea izan zen hasieratik. Eta jarritako helburua lortu egin dugu; ETB1ean sekula funtzionatu ez duen gaueko franja hori berreskuratu baitugu. Hori lorpen handi xamarra dela iruditzen zait.

—**Zein da zuen arrakastaren sekretua?** —Zuzenean egiteak garrantzi handia dau-ka; ezinbestekoa den freskotasun bat ema-

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

ten dio. Lortzen dugun giro ederra ezinez-koa izango litzateke bestela. Saio hau gra-batua izan balitz nik ez nuen onartuko.

—**Ez hartu txarto baina “Sorginen Laratza” Euskal Telebistaren “Crónicas marcianas” al da? Konparaketak molestatzen zaitu?** —Askotan egin didaten konparaketa da eta formula antzekoa denik ezin da ukatu, baina konparaketa hori alderantzizkoa izango litzateke “Crónicas marcianas” saioa gu baino beranduago hasi izan balitz. “Crónicas marcianas” ez da izan formula hau asmatu duena inondik inora ere. Formula hau Estatu Batuetan aspal-ditxo ateratako gauza da eta pixkanaka-pixkanaka Europara ekarri duguna. Pro-grama biak show-ak direla esan genezake, baina bereizten gaituzten gauza asko dauz-kagula uste dut.

—**Nekagarria egiten zaizu egunero pro-grama bat zuzenean egitea?** —Oso nekagarria egiten zait. Hau proba-tu duenak badaki. Nik makina bat lan egin dut aurretik (lehenbizi gazteen maga-zine bat aurkezten hasi nintzen, gero “Azken txanpa” izeneko saio bat zuzendu eta aurkeztu nuen pare bat urtean, infor-matiboak, transmisioak...) eta telebista barrutik pixka bat ezagutzen dudala iru-ditzen zait, eta dudarik gabe nik orain arte egin dudan lanik gogorrena eta exijentee-na “Sorginen Laratza” dela esan dezaket eta, gainera, alde handiz.

—**Noiz arte jarraituko duzue saioarekin?** —Askoren eskuetan dago; guztion eskue-tan, baina gehien bat zuzendaritza eta ikusten gaituztenen eskuetan. Zorionez

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

audientzia aldetik ondo funtzionatzen ari gara eta oraingoz gustura gaudela esan genezake, lan giro polita daukagu, hori gainera ezinbestekoa da, eta dena ondo doakigula esan daiteke. Baina ez dago esa-terik noiz arte funtzionatuko dugun eta noiz arte irudituko zaion ETBri formula honekin jarraitzea komeniko zaiola.

—**Urteak eman dituzu informatiboetan? Zer nahiago, lan hura ala gaur egun egi-ten duzuna?** —Oso-oso ezberdinak dira baina irudi-tzen zait ez direla bata bestearen kontra-koak ere. Dena da komunikazioa. Lan hark seguru asko niri gutxiago exijitzen zidan ez zelako gaurkoa bezain konplexua mugimendu aldetik eta izatekotan ere kameraren aldaketaren bat izaten nuen noizean behin. Baina oraingo hau, alde horretatik, askoz ere zailagoa da eta askoz buruhauste gehiago ditu askoz gehiago entsaiatu behar delako. Baina lan bako-i-tzak baditu bere gauza politak, zailtasunak eta erakargarritasunak.

—**Informatiboetan zeundela zein izan zen eman zenuen berririk onena, eta txarrena?** —Txarretan aukeratu behar banu ez nuke asmatuko bat bereizten. Herri honetako informatiboak dezente beltzak eta tragiko-ak izaten dira askotan eta ehunka albiste txar eman behar izan nituen. Bat ona aipatu beharko banu, ETAk emandako su etena aukeratuko nuke. Gogoratzen dut etxean nengoela ETBtik deitu zidatela hara bueltatu behar nuela esanez eta se-kulako pozarekin joan nintzen.

—**Baduzu oraindik bete ez den ametsik? Zein edo zeintzuk?** —Azken berri honekin lotutakoa izango litzateke; sua betiko etetea.

—**Hori izango litzateke eman nahiko ze-nukeen berria?** —Dudarik gabe. Orain ez nago albistegietan eta zaila izango da nik ematea baina bat hau-tatu behar banu hori hautatuko nuke. —**Epe laburrean zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak (arlo guztietan; telebistan zein bertsolaritzan)?** —Telebistan momentuan egunean-egu-



“Ez dut sekula bertso-eskolarik zapaldu”

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

Xabier Euzkartzegaz, 2011.

ko zaila izango dela ni plazetara itzultzea. Eta bestelako proiektuak, ba, berriro ari zaizkit bigarren disko batekin zirika, bada-go zintzilik daukadan liburu bat ere... Gauza asko egiteke eta denbora gutxi egi-teko.

—**Eta bukatzeko, zelan ikusten duzu eus-kararen egoera?** —Engainagarria. Alde batetik, ikastolen aldeko jaietan ikusten dugu jende pilo bat dagoela laguntzeko prest, baina beste alde batetik erdaldunen kopurua ez dela mu-rriztu egunero ikus dezakegu. m

[fotografia]

Gonzalo
M. Azurmendi



Estatuko zein nazioarteko aldizka-
ri prestigiozko gehienetan argita-
ratu izan ditu Gonzalo M. Azu-
mendik (Getxo, 1960) bere argaz-
kiak, besteak beste: *Geo*, *Viajeros*,
Muy Interesante... Izan ere, hogei
urtetik gora daramatza Gonzalok
free lance moduan lan egiten eta
munduko bazter guztiak ibiltzen.
Munduko kontinente guztiak za-
paldu ditu honezkero eta 80tik go-
ra herrialdetan egon da. Jendea-
rekin egotea eta jendea ezagutzea
gustuko ditu Gonzalok eta hori da
gehien fotografiatzen duen moti-
boa; jendea, bere miseriak eta
handitasunak. Mundua eta bere
aniztasuna gozatzea da bere filo-
sofia.

Bestetik, makina bat fotogra-
fi liburutan parte hartu du. Azke-
netako batzuk aipatzeagatik Boli-
biari buruzko fotografia liburua,
hango gobernuak eskatuta egin
berri du. Edota, Panamako kanala
Estatu Batuek Panamari itzuli zio-
tenean Bill Clinton-i oparitu zi-
tzaion kanalar buruzko fotografi
liburua berak egin zuen. m







Goian, Aitor Elorriaga zuzendaria Azpian, Patxi Lazkano aktore hasiberria

Aitor Elorriagak lan berria

Sopelako zuzendaria bere azken **film** laburraren muntai lanetan dabil, **Cannes**-en aurkeztea du orain helburu

Pasa den azaroan Aitor Elorriaga zine zuzendari sopeloztarrak film labur berri bat grabatu zuen bere herriko kaleetan; “*Un día gris*”, auto zahar baten bizi den eskale baten istorio dramatiko. Elorriagak aktore ezezagunak kontratatu dituen arren, filmaren aurrekontua 18.000 eurotakoa (hiru milio pezeta) izan da. Aktoreen artean, Patxi Lazkano Urdulizko “Basartena” tabernako jabea, Caren Zeron aktorea mexikarra, eskarmentu handikoa bere herrialdeko telebistaren kulebroietan baina ezezaguna Mexikotik kanpo, eta Aitor Merino, “Louis”-eko kidea eta Elorriagaren hainbat filmatan agertu dena.

“*Un día gris*” azaroaren 16, 17 eta 18an grabatu zuten Sopelan. Pelikulak hamaika minutu irauten du eta istorioa Aitor

Elorriagak berak idatzi zuen. Bera ere izan da filmaren zuzendaria eta produktorea eta muntaian parte hartuko du.

Azkeneko honekin honezkero hamar dira Aitor Elorriagak grabatutako laburmetraiak, azkeneko hirurak zine formatuan. Zuzendari gazteak beraz, jo eta ke lan egiten jarraitzen du bere debuta luzemetraian prestatzen duen bitartean. Hori baino lehenago, maiatzean, “*Un día gris*” aurkeztu egin beharko du Bilbon eta gero, zorteak laguntzen badu, Cannes-eko jaialdi famatura eramateko asmoa dauka. Lortuko balu arrakastaren bidea asko argituko litzaioke eta Aitorrek badaki hori ondo. Baina lehenago lan handia egin beharko du. Guk badaezpada ez dugu bere progresioa bistaz galduko. ^m

Filmaren errodatajea Plentzian

Joan den azaroa 20an eta abenduaren 20an bitartean Plentzia eta Uribe Kostako beste hainbat leku luzemetrai baten filmaketaren lekukoak izan ziren, “Agujeros en el cielo”, Pedro Mari Santos zine zuzendari bilbotarren lehenengo filma hain zuzen ere. Laburmetrai bi zuzendu ondoren Santos-ek urrats garrantzitsu hau ematen ahasartu da.

Pelikula tragikokomiko honek sei pertsonaien bizitzak aztertzen ditu, euren arteko harremanetan sakonduz eta guztien ikuspegiak erakutsiz. Aktoreen artean euskal zinearen zaletuentzako aurpegi ezagunak aurkitu daitezke, izan ere, besteak beste, Ander Lipus, Itziar Ituño (“Goenkale”) eta Alfonso Torregrosa (“Campus”) protagonisten artean daude. Eta baita ere, Erandioko Aiora Sedano gaztea; 19 urteko promesa berria, Santos-ek berak aukeratutakoa Getxon egin zen casting jendetsuan.

Talde osoa iazko azaroa eta abenduan zehar Plentzian elkartu zen. Han elkarrekin bizi eta lan egin zuten filmaketak iraun zuen bitartean. Geroago teknikariak eta aktoreetako batzuk Areeta, Erandio eta Mundakara abiatu behar izan zuten falta ziren sekuentzia batzuk grabatu ahal izateko. Dagoeneko beraiei zegokien lana guztiz bukatuta dago. Pelikularen muntaia baino ez da falta orain, eta dena ondo baldin badao, ITP Produktorak datorren irailean estreinatzeko asmoa du.



Aiora Sedano Erandioko 19 urteko aktorea gazteak filman hartu du parte

Ilarak Frodo-ren abenturak ikusteko



Filmeak lehehengo astean 11.800 milioi pezeta bildu zituen mundu osoan. Goian, Elijah Wood protagonista.

HISTORIAN DIRU GEHIEN BILDU DUTEN FILMEAK

	BILDUTAKO DIRUA
01- TITANIC (1997)	321.125 milio pta. (1.925 milioi euro)
02- STAR WARS, LEHENENGO KAPITULOA (1999)	161.350 milioi pta. (970 milioi euro)
03- PARKE JURASIKOA (1993)	161.000 milioi pta. (968 milioi euro)
04- INDEPENDENCE DAY (1996)	141.750 milioi pta. (852 milioi euro)
05- STAR WARS (1977)	136.500 milioi pta. (820 milioi euro)
06- LEOI ERREGEA (1994)	134.225 milioi pta. (807 milioi euro)
07- E. T. (1982)	123.375 milioi pta. (741 milioi euro)
08- FORREST GUMP (1994)	118.825 milioi pta. (714 milioi euro)
09- SEIGARREN ZENTZUMENA (1999)	115.675 milioi pta. (695 milioi euro)
10- PARKE JURASIKOA; GALDUTAKO MUNDUA (1997)	107.450 milioi pta. (646 milioi euro)

weborrialdeak

www.imdb.com



Zinearen erabateko biblia Interneten (ingelesez) eta inolako zalantzarik gabe munduko datu base-rik hoberena. Mota guztietako zalantzak argitzeko tokia eta zinemazaleentzako ezinbesteko gunea.

www.cinemagazine.com



Gaur egun gaztelaraz dagoen zinemari buruzko orrialderik onenetak. Berriak, elkarriketak, kartera eta estreinaldi guztien datu eta bitxiak inon baino lehenago argitaratzen dituzte.

www.buscacine.com



Buscacine bilatzaile ederra eta lotura ugari dituen webgunea da. Email-ez eta de balde bidaltzen duten asteroko aldizkaria gunek eskaintzen duen zerbitzurik onena da. Merezi du.



Kalimotxoaren asmaketa eta jaietako hainbat pasadizo

Algortako Antzarrak taldeko lagunek **trantsizio** garaiko jaien berri, **kalimotxo** berbaren sorrera eta Kepa Urkizaren hainbat argazki bildu dituzte eurak argitaratutako **liburuan**



Antzarrak taldekoak Portu Zaharrean elkartu genituen

Kalimotxo berba Algortako Portu Zaharreko jaietan asmatu zuten Antzarrak taldekoek 1972ko abuztuaren 12an arratsaldeko bostetan. Joan den ekainean UK-k asmaketa honen lekuko bat aurkitu zuen eta berehala berarengana jo genuen pasadizo historiko eta harrigarri hau ezagutzeko. Martín Mugika ekonomista algortarrari egindako elkarrizketak arrakasta itzela eduki zuen eta guk emandako berria laster zabaldu zen Uribe Kosta eta Bizkaian zehar. Ordutik asko eta asko izan dira Martín Mugikari eta bere lagun taldekoei egindako elkarrizketak. Pasadizoak piztutako interesa ikusi ondoren, Mugika eta Antzarrak taldekoek amets zahar bat berreskuratzea erabaki zuten. “Orain dela urte batzuk koadrilakook pasadizo hau eta beste batzuk liburu batean argitaratu genezakeela pentsatu genuen baina inork ez zuen interes handirik adierazi” azaldu zigun Mugika jaunak. “Azkenean Bizkaiko erakunde garrantzitsu baten babesa lortu genuen baina proiektua nahiko aurreratuta zegoenean atzera egin zuten eta ezin izan genuen liburua plazaratu. Buelta ugari eman ostean, guk geuk argitaratzea erabaki genuen”. Esan bezala, liburuaren ideia aspaldikoa zen. “Orain dela urte batzuk, kalimotxo berbaren asmakizunari buruz eztabaidatzen hasi ginenean Madrileko lagun batek hitza 1980ko Bilboko jaietan asmatu zela esan zuen baina Antzarrak taldekoek egia bagenekien, pasadizo honen lekukoak izan ginelako eta liburu baten bidez demostratzea erabaki genuen. Historia 2000ko abenduak idatzita zegoen eta ordutik kajo batean sartuta eduki dugu”. Aurtengo Gabon jaietarako opari ona izan litekeela pentsatu eta joan den abenduaren 21ean Antzarrakoek liburux-



- ARGAZKIAK: KEPA URKIZA
 1- Olgetan jai batzordearen txosnan, 1975
 2- Neskatilen arteko boxeo borroka, 1976
 3- Nesken taldea, 1976
 4- Asto lasterketa, 1975
 5- Morotxok Miss Kalimotxo izendatu zuen bere burua, 1975



ka bitxi honen lehenengo edizioa atera zuten. Liburuak 115 orrialde ditu eta kalimotxo berbaren asmaketa gain, Algortako Portu Zaharreko beste hainbat pasadizo dibertigarri kontatzen ditu. Jon Elorriaga eta Martín Mugika testuaren egileak izan ziren eta liburuan agertzen diren 1975eko eta 1976ko argazkiak Kepa Urkizak hartutakoak dira. Datak zehazteko norberaren oroipenak eta garai hartako egunkariak erabili zituzten. Begoña Larraudogoitia izan da idazlanaren berrikusketa egin duena. “Edizio hau gure diruarekin ordaindu dugu eta beraz, 550 ale baino ez ditugu argitaratu, lagunak eta senideei oparitzeko. Dagoeneko guztiak banatu ditugu eta bigarren edizioa ateratzea pentsatu dugu”. Hori posible izan dadin algortar hauek babesleen bila dabilta. m



Fanfarria honek ez du sekulan dirurik onartu euren alaitasunaren ordainean

Kutsuz Areatxu fanfarria

Udaberrian **20. urteurrena** ospatuko du Getxoko fanfarria bakarrak

Euren hitzetan Algortako egiazko azkene-ko koadrila da “Areatxu” eta aldi berean, herriko fanfarria bakarra. Taldea 1981eko urrian jaio zen eta udaberrian euren hogei-garren urteurrena ospatzeko asmoa daukate. Atzean 20 urteko historia geratzen da. Ibilbide luze honetan lagun batzuk bidetik geratu dira. Julio Jaén, Kutsuz, taldeko sortzaileenetarikoa bat, fanfarrea jaio eta handik gutxira hil zen, horregatik, bere omenez, txarangari izena luzatu zioten. Aurrerantzean Kutsuz Areatxu deituko zen. Fanfariaren beste hiru sortzaileak, Joseba Bueno, taldeko presidentea; David Leammon, musika zuzendaria eta Juan Luis Madariagak, oraindik jarraitzen dute, hasierako hamahiru lagunekin batera. “Koadrilako guztiok musikazale amonatuak ginen eta izugarri gustatzen

zitzaigun bazkari eta afarietan abestea. Gure zaletasuna plazaratzeko zerbait egin behar genuela argi zegoen eta horregatik lagun gehienok fanfarria osatzea erabaki genuen. Guztira hamasei kide gara eta aurten beste sei pertsona sartu dira. Batzuetan gure erritmoa jarraitzea kostatzen zaie baina ezin dugu ahaztu gu geuk ere arazo handiak eduki genituela hasierakoan. Gehienok ez genekien ezer ez solfeoz baina arazo txiki hau notak zenbatzen konpondu genuen” kontatu zigun Joseba presidenteak. Musika tresnak (hiru tronpeta, tronboi bat, hiru saxofoi, bonbardino bat...) Basaurin erosi zituzten eta handik gutxira plazara ateratzen hasi ziren, beti de balde jotzen. “Sarritan janaria eta traguak ordaintzen dizkigute baina ez dugu dirurik onartzen”. Fanfarria mitiko honen helburua oso beste-

lako da: “Galtzeko bidean zeuden gauza eta ohitura asko berreskuratu nahi genituen; abenduaren 6an ospatzen den San Nikolas-eko negua, San Inazioko jaiak, Santa Ageda,... Gu kalera ateratzen hasi ginen eta pixkanaka-pixkanaka lehengo giroa berreskuratu nahian”. Baina hemengo herrietako kaleetatik ibiltzeaz gain, “Kutsuz Areatxu”koek beste hainbat lekutan jotzen dute. “Urtero Iruñea eta Gasteizko jaietara joaten gara eta goizeko hirurak edo laurak arte jotzen dugu eten gabe”, dio Josebak. Zaletasunik behintzat ez zaie falta “Kutsuz Areatxu”koei, ezta laguntzarik ere. “Batzutan musikagile famatu batzuek (Gaizka Elozegi eta abar) lagundu egin gaituzte. Guztion artean maila on bat lortu dugula esango nuke”. m

Harremanetarako: 656 79 48 50 (Joseba)

Taldea Canal Mousselym

Euren lehenengo diskorako **kantak** prestatzen dabilta



Talde moduan duela hiru urte jotzen dute. Karmelo, baxuan, Alfredo, baterian, Jabi, gitarra, eta Beñat, ahotsa dira “Canal Mousselym” rock banda. Leioan entsaiatzen dute (metroko geltokiaren ondoan beste hainbat talderekin daukaten aretoan). Oraindik ez dute diskorik argitaratu baina badauzkate lehenengoa ateratzeko gogo itzelak eta kanta berriak prestatzen dabilta. Momentuz kaleratu duten lan bakarra lau kanta dituen “Canal Mousselym” izen bereko maketa da. Horrez gain, eta Uribe Kostako mailan bada ere, ospe handia lortzen ari dira gure eskualdean eskainitako kontzertuei esker. Besteak

beste Larrabasterrako “Highlands”-en, Sopelako “Sunset”-en, Barrikako “El golfo norte”-n eta Leioako “Kaos” tabernan jo dute bere musika erasokorra. Berarekin mantendu genuen solasaldian Javier Macias gitarra joleak “Led Zeppelin” eta “Perl Jamp” taldeek eurak egiten duten hitzetan eragin handia daukatela aitortu zigun. Javik berak taldearen izen bitxiaren jatorria azaldu zigun; “Mousselym mapa zahar batean aurkitu genuen kanal baten izena da. Gustatu zitzaigun eta horrela bataiatu genuen gure rock taldea”. m

www.canalmousselymfm.com

diskoak

UKproiekt01
Batzuen artean
UK aldizkaria



Eskualdeko musika elektroniko egileen kanta bilduma esku artean duzun aldizkari honen eskutik. Guztira estilo desberdinetako hamaika kanta, 60 minutu. Orokorrean musika lasaia eta tartean dantza egiteko kantaren bat. CDa 12 eurotan banatzen da eta eskuratu nahi baduzu, onena gure erredakziora telefonoz deitzea duzu.

U-Street All Stars
Getxoko Jazzaldia
Hilargi Records



Getxoko iazko jazzaldia irabazi zuen Finlandiako U-Street All Stars taldearen sei kanta biltzen ditu disko honek. Diskoa osatzen duten kantak zuzeneko emanaldian grabatu ziren iazko uztailan, Jazzaldian bertan. Laukote honek jazzaldiko saria irabazteaz gain, publikoaren saria ere eskuratu zuen.

www.imbecil.com
MCD
Eurak



Ez da disko bat, webgune bat bat baizik, MCD Bilbo-ko talde historikoarena hain zuzen ere. Bertan euren azken lana, imbecil.com, dohan jeitsi ahal izan izango duzu. Webgunea oso ondo eginda dago eta barre egin nahi baduzu, ez zara damutuko bisitatxo bat egiten badiezu. Aspaldiko izpiritu zirikatzailea.

> Nire disko kutunak ROGE BLASCO*



NIRE NAZIOARTEKO ROCK DISKORIK KUTUNENAK

01. The Beatles “Abbey road”
02. King Crimson “Island”
03. Genesis “The lamb lies down on Boradway”
04. Robert Wyatt “Rock bottom”
05. Can “Future days”
06. Van Der Graft Generator “Godbluff”
07. Led Zeppelin IV
08. Yes “Close to the edge”
09. Pink Floyd “Dark side of themoon”
10. Premiata Forneria Marconi “Per un amico”


EUSKARAZKO KANTARIK ONENAK

01. Itoiz “Itoiz”
02. Itoiz “Ezekiel”.
03. Txomin Artola “Belar Hostoak”
04. Ruper Ordorika “Hautsi da anphora”
05. Haizea “Hotz gaia”
06. Hertzainak “Hertzainak”
07. Mikel Laboa “Bat hiru”
08. J. C. Perez “Atlantic river”
09. Xabier Montoia “Lagunak adiskideak...”
10. J. C. Perez “Hau Berau”

*ROGE BLASCO Radio Euskadin egiten du lan. Astelehenetik ostirala arte, egunero “La casa de la palabra” irratsaioa egiten du bertan gaueko

[sarean]

webgida



ESKUZ EGINIKO ERLOJUA

>yugop.com/ver3/stuff/03/fla.htm

Sarean makina bat erloju ezberdin aurki daitezke. Batzuk, segundu nimiño bat ere ez dute inoiz atzeratuko, teknologia atomikoaz ballatzen direlako. Baina, bes-teetan, imaginazio handiz eta botarteko gutxiarekin egindakoak ikus daitezke. Honako hauetan, badiurdi marrazlari bat daukagula momentu oro guri zein ordu den erakusteko prest. Ikusi beharrekoa.

Hizkuntza: ez du.

MUSIKA BILATZEKO

> www.hispamp3.com


Gaztelaniaz dagoen MP3-ri buruzko orrialderi osatuenna. Euroa poltsikoan eta oraindik ez dakizula zer arraio den MP3? Bada garaia, txo! Hori bai, Hispamp3n ez dituzu abestiak topatu-ko, baina ikasiko duzu non eta nola bilatu Interneten zehar dauden doinuak.

Hizkuntza: gaztelania

MUSIKARI IRUDIA JARRI

www.geisswerks.com

Liluragarria: ez dago Ryan Geissen lana deskribatzeko modu hoberik. Geiss jau-nak bi programa sortu ditu, bata ordena-dore zaharretan eta bestea punta-punta-koetan dabilena. Zertarako? Irudiak sor-tzeko edozein musikaren arabera. Egizu aproba, instalatu musika entzuteko



Testuak: Iker Merchán

Sustatu

Teknologia, Ekonomia, Kultura.

Kultura | Irakaskuntza | Internet | Informatika | Hizkuntza | Enpresa | Bestelakoak

Sustatu

- Zeuk idatzi
- Jaso e-postaz
- Hitzorduak
- Pil-pilean

Bilatu

Bilaketa

aurreratua

Loturak

- Aurki
- Argia
- PuntBarra
- Barrapunto
- KuroShin
- LinuxEr

Honi buruz...

000

Euskarazko web orrien zerrenda kaleratu du Donostiako Euskararen Udal Patronatuak

Bidaltzailea: Edurne.
2002-02-04 / 10:23 / Donostiako Euskararen Udal Patronatua.

Internet sarean euskaraz aurki daitezkeen web orrien helbideak jasotzen dituen gida argitaratu du Euskararen Udal Patronatuak. Ahalik eta era arinenean sailkatuta eta Donostiakoak direnei arreta berezia jarri, 1.140 helbidek osatzen dute zerrenda hau.

Guztia irakurri

000

Kontuz Audiogalxy zaleok, Spyware eta birusak eskatu gabe!

Bidaltzailea: Iban.
2002-02-04 / 10:19 / sustatu.

Halaxe dio El Pais egunkariak argitaratutako berri batean. Audiogalxyren erabiltzaileek, mp3ko katuez gain birusak eta espiatzeko gai den programa bat ere ekartzen duzula zure

Babeslea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua

Egutegia

- Iban Zalduearen irakurraldia Traizioak liburuaren aurkezpenaren aitzakiaz 02/07
- Agur pezetari 02/28
- BIEMH Makina: Erramintaren bienala 03/11-03/16
- Osasungoa Euskalduntzeko Elkartearen Jardunaldiak 04/19-04/20
- Morfologia eta

Euska

l

Herriko kultur agenda

Web orrialde honek itxura hau du

Profesionalak sustatzen Sustatu.com-ek ‘weblogen’ sukarra ekarri die euskaraz aritzen diren profesionali

Teknologia, ekonomia eta kultura: hauek dira Sustaturen zutabeak. Jaioberria den ‘weblog’ honetan euskaraz diharduten profesionalek euren albistegia aurkituko dute. Baina, zer esan nahi du ‘weblogek’? Web-gune hauetan editore talde batek erabaki-tzen du zer plazaratu gai zehatz bati buruz. Hortik aurrera, erabiltzaileena da ekimena, eurek gehituko baitituzte nahi beste iruzkin berri horiei buruz. Gauzak horrela, gehi-enta, berrietan baino iruzkin horietan dago

informazio mamitsuena. Albiste baten in-guruan bisitarien ezagutzak batzen dira, azken finean amankomunean egindako jakite prozesu etengabea dira weblogak.

Honelako webgune batean, erabiltzaile-en partehartzea funtsezkoa da. Slash-dot.org-ek (guztien aitzindaria) milaka lagun batzen ditu egunero, eta ez da batere arraroa berri bakar batean ehundaka iruzkin aurkitzea. Hemendik gutxira, horrelakoa izatera ailegatuko da gure Sustatu.com? m

Zer ote da? Opera

Nabigatzaile arina

Interneten zehar ibiltzeko internauta gehientsuek bi programa baino ez dituzte erabiltzen: Microsoft Internet Explorer edo Netscape Navigator. Baina badago kontuan izan beharreko beste aukera anitz. Bi nabigatzaile xeblebre hauen ezaugarri nabarmenetakoa erraldoitasuna da. Aukera mordoa dakarte, baina, horren truke ordenadorearen disko gogorra bete eta errendimendua moteltzen dute. Punta-puntako PC-a izan ezean, tortura jasanezina bihur daiteke programa horien bitartez web orri xume bat bisitatzea.

Horregaitik “Opera” bitxikeria galanta eta erosoa da, bere zeregina ondo baino hobeto betetzen baitu: web orrialdeak azkar eta txukun aurkeztea, baita ordenadore zahar eta txikieta ere. Hori bai, inork ez dezala berrikuntza arrarorik espero. Bere arintasuna behar ez diren aukerak kentzetik dator. “Opera” ez da debaldekoa, baina bi modutan ordain daiteke: diruaren truke edo iragarkiak ikusiz, eta Windows, Macintosh eta Linux-entzako bertsioak kalean daude.

Non aurkitu Opera? www.opera.com

e-mail elkarrizketa

Atzera

Aurrera

Etxera

Jaso

Irudiak

Treki

Inprimatu

Bilatu

Stop

Helbidea: kirru@yahoo.com

Jendea

Interesgarria

Bilatu

Internet

e-mail

Software

Be at Lores, 27 urte, Algortara

Enpresa zientzietan lizentziatua

Duela urte bi Edinburgon bizi

BEÑAT LORES:

“Alaiak, neurrigabeak, edarizaleak, polite-ak dira eskoziarrak”

Zehazki non bizi zara Beñat?
Edinburgon, Eskoziako hiriburuan.

Zertan zabilta hor? Zertan egiten duzu lan?
Joan den urtean, hemengo unibertsitate batean ikasten ibili eta gero, aurtun analista moduan nabil lanean europar enpresen urteko kontuak aztertzen.

Noiz joan zinen eta noiz arte geratzeko asmoa daukazu?
Orain dela urte bi eta erdi heldu nintzen hona. Buelta urrian izango da; dena den, agian beste tokiren batetara joango naiz Algotara bueltatu aurretik. Ikusteko dago oraindik.

Zergatik aukeratu zenuen Eskozia eta ez beste lekuren bat: Asia, Amerika...?
Beno, nire asmoa ingelesa praktikatzea zen eta oporretan Eskoziatik ibili eta gero, Edinburgo bizitzeko toki ona zelakoan, bertara etortzea erabaki nuen. Hiri polita da, oso erosoa -ez da handiegia- eta mota askotako jendea dago.

Kontatu apur bat nolakoa den zure egun bat normal bat Edinburgon?
Goizeko 8:30etarako lanean egoten naiz normalean eta arratsaldeko 6:00/6:30etarako kalean. Egunaren arabera, laneko lagunekin futbitoan jokatzen dut eta partidurik ez badago, zinera edo eta etxera joaten naiz.

Kanpotarra izanda, zelan hartu zaituzte hor?
Ondo, ni oso gustura sentitzen naiz. Edinburgon munduko herri guztietako jendea dago eta horrek atzeritarrekin elkar bizitzeko nolabaiteko ohitura sortu du.

Horko girora egokitzeke, zer da gehien kostatu zaizuna?
Dudarik gabe, negua. Oso gogorra da, baina ez hotz asko egiten duelako, baizik eta oso iluna delako. Arratsaldeko 4:00etarako gaua da eta ez du berriro argitzen hurrengo eguneko 8:30 arte gutxienez.

Zer da herri horretan gehien estimatzen duzuna? Zer gustatzen zaizu gehien?
Edozein motatako lana aurkitzeko aukera zabala dago. Egoera hau gurasoen etxetik kanpo bizitzeko aukera ematen du eta beraz, normala da bere kabuz bizi diren 19 edo eta 18 urteko gazteak topatzea.

Eta zer gutxien?
Janaria. Denetarik aurkitu eta jan dezakezun arren, ez dituzte ondo prestatzen. Produktua berez ona izan daiteke, baina ez dakite zapore guztia ateratzen. Kafea adibide bat besterik ez da; barazkiekin eta beste gauza askorekin gauza bera gertatzen da.

Saiatu lau berbetan eskoziarren izaera definitzen.
Alaiak, neurrigabeak, edarizaleak, “polit”ak.

Eskoziara joan nahi dut oporretan, zer da halabeharrez ikusi behar dudana?
Edinburgo eta Glasgow ikusi behar dira. Skye irla era sekulakoa da. Gainera Skye-rako bidean beste zenbait toki ikusgarri daude, Glencoe eta Eilean Donan Castle adibidez.

Etxetik urrun bizi izanda, zeren falta sentitzen duzu, zelako gauzak?
Familia, taldea eta etxeko janaria.

prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arituza z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Inportaziozko zerbezi onenak

Terraza zabala

basartena

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ?GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 43
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) 00 01
48990 NEGURI 87

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA?MARI?GETXO

UMEAK - GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543

ENEKO

BAR amate

50UK

UK 51

Publizitatea Patxiii-ren iragarkia

Euskaltelen iragarkirik famatuena, nork ez du inoiz kaletik “Patxiiii” **oihu ospetsu** berria entzun? Baina nor da egiazko Patxi? **Aldizkari** honek ideia horren asmatzaileak aurkitu eta beraiengana jo zuen **berri** gehiagoren bila

Patxi-ren iragarkiaren atzean, itzalean lan egiten duen lan talde handi bat dago. Ideia berri honen asmatzaileak Dimensión publizitate enpresa eta Euskaltel-eko marketing saila izan dira. Baina Patxi-ren iragarkiak baditu izen propioak ere; Juanra Arraidi eta Patricia Gaztarain Euskaltel-eko marketing sailekoak eta Dimensión publizitate enpresako Mikel Aguado eta Guillermo Viglione. Azken hau enpresako sormen zuzendaria eta presidentea da. Berarengana jo genuen Patxi iragarkiaren historia ezagutzeko.

—**Viglione jauna, zure benetako izena Patxi al da?**

—Ez, [barreka] ni Guillermo Viglione naiz, enpresaren sormen zuzendaria eta presidentea baino ez. Egoitza Donostian dugu eta gurea, hirurogei lankide gara, Euskal Herriko publizitate enpresarik handiena da.

—**Orduan nor da Patxi?**

—Beno, nor baino gehiago, zer den esan diezazuket; Patxi inoiz eduki dugun idearik onena izan da. Euskaltelek dei probintzialen kanpaina merkaturatzeko kanpaina eskatu zigun. Eta horrela jaio zen Patxi-ren iragarkiaren ideia.

—**Eduki duzuen arrakasta espero zenuten?**

—Ez. Orain arte era guztietako enpresetarako (BBK, Kutxa, Acenor eta abar) kanpaina ugari egin baditugu ere, ezin da ezer konparatu iragarki honek eduki duen arrakastarekin. Aurtengo iragarkirik famatuena izan da Euskal Herrian eta datorren urtean gogoratuko dugun horietariko bat izango da, nekez gogoratzen baitugu publizitatea. Adibidez, ezetz aipatu iazko lau edo bost iragarki! Ezin izango zenuke.



Dimension-eko lantaldea: Mikel Aguado, Santi M. eta Guillermo Viglione

—**Non dago iragarki bat arrakastatsu izateko gakoa?**

—Jakingo bagenu! Zorionez edo zoritxarrez iragarki onak egiteko ez dago formula magikorik, bestela astero aterako genuke bat. Hala ere, oro har, jendeak umorea eta sinpletasuna estimatzen ditu. Aurten hogeit bat iragarki egin ditugu Euskaltelentzat eta nik beste asko nahiago nituen arren, arrakastatsuenak Patxi eta Kuotarena izan dira.

—**Zelan neurtu daiteke iragarki baten arrakasta?**

—Umeengan, futbol zelaietan (San Mamesen adibidez iragarkia jartzen dutenean jende askok “Patxiiii” oihukatzen du), tabernetan... Jendea “Patxiiii” edo “Kuota” oihukatzen eta karatekarena egiten ikusten dugunean horrek esan nahi du iragarkia gustatu zaiola.

—**Eta lehenengo iragarkiaren arrakasta ikusita, antzekoak ziren beste batzuk atera zenituzten...**

—Ez. Guztiak aldi berean grabatu genituen. Guk ez genuen espero hain ospetsuak egingo zirenik, baina publizitatearen mundu lehiakor honetan arriskatu behar da.

—**Euskaltelentzat lanean jarraitzen duzue?**

—Bai; hasieratik gabiltza haiekin (publizitatearen %90 egiten diegu) eta jarraitzeko asmoa dugu.

—**Zein izango da hurrengo iragarkia? Patxiren besteren bat?**

—Oraindik ez dakigu nolakoa izango den hurrengoa baina momentuz bada ere, Patxirenak alde batera utziko ditugu eta kanpaina berri batekin hasiko gara. Eta aurrerago, agian, saiaturiko gara Patxiren fenomeno berpizten. Auskalo! m



José Oteo eta Asier Pérez, Funky Projets enpresako kideek egin dute aurtengo Athletic-en posterra



12. JOKALARIA

Athletic-en posterra Bizkaian zabalpen gehien duen era horretako irudia da, guztira 250.000 ale banatu dira aurtengo zaleen artean eta edonon ikusi daiteke. Aurtengo posterra egiteko bazkideek ia 3.000 irudi bidali zituzten eta notarioaren aurrean egindako zozketan 1.212 aukeratu ziren posterraren hondoa osatzeko. Bazkideen irudi horiekin bazkidea bera, hau da, 12. jokalaria, omen du nahi izan dute poster honen egileek.

Irudia Athletic-en poster berria

Athletic-ek urtero ateratzen dituen taldeko posterrak beti berdinak izan dira orain arte; zutunik eta eserita kamerari begira, lehenengo taldeko futbol jokalaria, medikuak eta entrenatzaileak, eta haien atzeko aldean, Bizkaiko toki ezagun bat; Portugaleteko zubia, Guggenheim museoa edo beste edozein. Aurten gauzak nabarmen aldatu dira, urtero legez lehenengo planoan jokalaria agertzen diren arren, argazkiaren atzeko aldean Athletic-eko chunka bazkideren argazkiak azaltzen baitira. Ideia berri honen asmatzaileek izen-abizenak dituzte; Asier Pérez González eta José Oteo, “Funky projects” publizitate eta komunikazio enpresaren kideak. Asier bilbotarra da eta 31 urte ditu. Josék 25 urte ditu eta Getxokoa da. Biak “Funky projects” enpresaren ardura-dunak dira. *“Egiten dugun lana ikusita, publizitate agentzia bat garelako pentsa daitekeen arren, hori ez da egia. Gure lana zertxobait gehiago da. Guk zera esaten dugu, ‘pertzeptzio sozialaren kontsultorioa’ garelako; jendeak dituen iritziekin egiten dugu lan eta, horrela, kaleko jendearekin interesa dakiokeena aurkitu dezakegu”*, azaldu zigun Asierrek. Eta Athletic-en posterraren ideiarekin bete-betean asmatu dute inolako zalantzarik gabe; bazkideen erantzuna espero zutena baino hobea izan da eta aurtengo posterra inoiz baino hobeto banatzen ari da. *“Athletic-en zuzendaritzak zerbait berria nahi zuen; bazkideengana hurbilketa nabari bat eta ideia hau proposatu genienean, hasieratik euren gustukoa izan zen”*, dio Asierrek. Poster honek Athletic-en komunikazioaren aro berri baten abiapuntu izan nahi du. Komunikazio errazagoa eta parte-hartzaileagoa, afiliazioa, kohesioa eta hurbilketa prozesuak eragin nahi dituen. m

Harremanetarako: www.funkyprojets.com

Leo Bassi: “Globalizazioaren aurka dauden jarrera guztien alde nago”



Leo Bassi Getxo Antzokian ikusle bati bere nikiaren marka kentzen

Leo Bassi komedianta italiarra ospetsu egin da bere ikuskizun zirikatzaileei esker. Adar jole amorratu honek bere azkeneko lan satirikoa, “La vendetta”, aurkeztu zuen Getxo Antzokian.

—Zelan definituko zenuke zeure burua? aktorea, komediantea, zirikatzaile profesionala...?

—Nik esan... bufoia naizela esaten dut askotan. Bufoiek bezala, edozein gauza egiteko prest nago jendearen erreakzioa eragiteko. Umorea arma moduan erabiltzen dut beti.

—Zer zerikusi dauka Leo Bassik, pertsonaiak, Bassi pertsonarekin?

—Pertsona bera gara. Eszenatokian antzeztu baino gehiago egiten dut. Gidoiak neuk idazten ditut eta, beraz, nire iritzia botatzeko tresnak dira. Zurekin hemen dagoen Leo Bassi eta gero jendeak ikusiko duena berdin-berdinak gara.

—Erreta xamar zabiltza telebistarekin...

—Bi urte eman ditut telebistan eta han ikusi-

sitakoa ez zait batere gustatu; dagoen manipulazioa, kontrola, zentsura... *La vendetta* telebistaren aurkako mendekua da.

—Garai latzak bizi izan dituzu. Inoiz zure lanbidea baztertzea pentsatu al duzu?

—Inoiz ez. Telebista usteko erabakia hartu nuen eta ez naiz horretaz damutzen, baina antzerkia inoiz ez dut utziko. Gurasoak antzezleak nituen eta gurasoen gurasoak ere bai. 150 urteko tradizioa da eta jarraitzeko asmoa daukat.

—Orain ospetsua zara. Aldatu zara?

—*Crónicas marcianas*-en agertzen nintzenean nire lana manipulatzeko saiatu ziren eta horregatik joan nintzen. Inoiz ez naiz aldatu eta inoiz ez naiz aldatuko.

—Zelan deskribatuko zenuke zure espektakulua?

—Guztiz probokatzailea da. Lehen esan dizudan bezala, edozein gauza egiteko prest nago jendearen erreakzioa eragiteko.

—Jendeak ulertzen al zaitu ala badago haserretzen zaizunik?

—Denetarik dago. Ikusle gehienek bada-

kite zer ikusiko duten, baina badago harritzen den jendea ere. Sarritan eztabaida handiak eduki ditut ikusleekin eta inoiz jo ere egin naute.

—Baina egia al da antzokietako lehenengo ilarak direla saltzen diren azkenak? Zergatik? Zer egiten diozu jendeari?

—Bai, egia da. Jende gehienak ez du ezer jakin nahi baina badago probokazioaren bila datorrenik ere.

—Pelikula batean lan egin zenuen Susan Sarandon, Ben Gazzara eta Christopher Walkenen ondoan, John Turturroren aginduetara. Nolako esperientzia izan zen?

—Oso ona. Aktore erraldoi hauen ondoran lan egitea ohore handia izan zen. Estatu Batuetan zine mota bi egiten dira; Hollywooden lantzen dutena eta benetakoa. Walken, Sarandon eta Gazzara, Hollywoodeko izar handiak diren arren, benetako aktoreak dira eta pelikula txikietan lan egiteko prest egoten dira.

—Zinean jarraitzeko asmorik bai?

—Turturrok niretzat beste paper bat daukala dio eta horrela bada, bere aginduetara jarriko naiz. Baina ni bufoia naiz, ez aktorea, eta zinean lan egin ahal izateko nire neurrian idatzitako paperak behar dira. Bestela, barregarri geratuko nintzateke.

—Zer darabilzu esku artean?

—Nire hurrengo lana Madrilan aurkeztuko dut datorren astean. Titulua *12 de septiembre* dauka eta Estatu Batuetan gertatutakoarekin zerikusi handia dauka. *La vendetta* baino gogorragoa eta zirikatzaileagoa da eta oso polemikoa izan daiteke.

—Gaztea zinenetik mundu osotik ibili zara; ezagutzen zenuen Euskal Herria? Zelakoak gara euskaldunok?

—Bai, ezagutzen nuen eta gustukoa dut. Euskaldunak ezberdinak zarete eta, horregatik agian, gustura sentitzen naiz zuen artean. Euskaldunek bere berezitasunak ez galtzeko borrokatzen dute; ni globalizazioaren aurka dauden jarrera guztien alde nago. m

iTZAULINKA?

MAHAI JOKOA

BizkaiaBizkaiko aekren ganeko 2.000 itaun-erantzun

GAZTETXO eta HELDUENTZAT

Zer dakizu Bizkaiaz?

- Zeri esaten jako “ogigaztaia”?
- Nor zan Martina Ibaibarriaga?
- Zein da euskera hobe, Markina ala Zornotzakoa?

2.000 itaun, geure herrialdea olgetan ezagutzeko.

Eskaerea egiteko orria

DNI / CIF
ENA / IFK.....

Persona y teléfono de contacto
Harremanetarako, izena eta telefonoa

Dirección
Helbidea

Código postal
Posta kodea Provincia
Probintzia

Forma de pago
Ordaintzeko era **Banku bidez**(20 zenbaki)

Entidad bancaria
Bankuaren izena

BIZKAIAKO aek euskal herriko alfabetatze euskalduntze koordinakundea

Salneurria: 5.000 pta./ 1.000 ogerleko/ 30,05 € (B.E.Z. barne)

Eskatu egizu zeure herriko aek-ren euskaltegian, edota:

• 94 415 52 57 edo 94 415 95 12 telefonoetan • Posta-e: idoia@aeknet.net • 94 416 65 55 faxa •

*Informazioa aek-ren fitxategian gordetako da, babespekoa da eta interesatuak eskatu, aldatu edo ezabatu leike gura izan ezker. Beronen kontrola nahiz erabilera, Norberaren Datuak Babesteko Lege Organikoaren mende dagoz.

*Esta información se guardará en nuestro fichero, es confidencial y el interesado es libre de modificarla o cancelarla. Su control y tratamientos están sujetos a la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal.

Urteko **gal**agalako

2001eko abenduaren 22an ALBEk urteko azken ekitaldi nagusia egin zuen Getxo Antzokian 17:30etan hasita: **URTEKO GALA**. Egia esan, galako irten zen aurretik ardura handiz prestatutako ospakizuna. **300 bat bertsozale bildu ziren bertara eta hiru ordu luze iraun zuen ikuskizunak puntako une asko izan zituen, bertaratuen atseginerako. Txaloak, beraz, halan zein holan parte hartu zenuten guztioi.**

Testuak eta argazkiak: **Algortako Bertsolari Eskola**

Parodia bikaina

ALBEko kideek parodia umoretsu eta ikusgarri batekin eman zioten hasiera arratsaldeari. Getxoko balizko bertsolari txapelketa irudikatu zuten ohol-tza gainean. Gai-jartzaile lanak Josu Esnaolak egin zituen, epaimahaia Sprai Peru (Peru Vidal) eta On Beñat (Beñat Vidal) gazte-ek osatu zuten. Parte hartzaileak 5 izan ziren: Erromotik Guaitus Gorrotum (Jagoba Pereda), Areetatik Jose Luis Yatebarri (Ekaitz Larrazabal “Katxo”), Neguritik Borja Mari Chaletgoikoa (Pello Etxebarria “Bonbero”), Algortatik Iker Santxeski (Alberto de Abajo “Zoro”) eta Andra Maritik Isidro Zazemorena (Josu Landeta). Kazetari sasijakintsuaren papera Xabier Paia egin zuen, bertsozale peto klasikoarena Galder Bilbao “Txapi”k, bertsozale moderno eta inkonformistarena Joanes Igere-gik, euskaldun berri bertsozalearena Nahikari Aiok eta bertsozale kritikoena Miren Loizagak eta Goizalde Atxutegik. Parodia bera benetan originala eta bizia izan zen. Taularatzea ere itzela. Ikusle egon ziren Egañak, Lizasok, Iturriagak eta Elortzak ere gogotik egin zuten barre.



ALBEko kideak parodiaren antzez-penean

Saio dotorea

Parodiaren ostean arestian aipatutako lau bertsolariek saioa egin zuten Bernardo Mandaluniz gai-jartzailearen agindura. Bernarrek, erdi txantxetan erdi benetan, gai gehienak Txapelketa Nagusiko gaitan oinarritu zituen. Hori ez zen izan bertsolari batzuen eta zenbait ikusleren gustuko-egi, baina egiaren izenean esango dugu, guztiarekin ere, bertsolariek saio txukuna egin zutela, han-hemen euren maila bikai-naren adibideak eskainiz. Saioan zehar ez ziren falta izan aurreko parodia barrega-rriaren aipamen eta erreferentziak.

Bideo ikusgarria eta merezitako sariak

Atsedendia labur baten ostean eskolak prestatutako bideoa ikusi genuen eta 130 fotogramatan 2001. urtean zehar ALBEk eskualdean antolatutako ekitaldiei eman genien errepasoa. Saioetako irudiek eta musika lagungarriak ikusleen txaloak era-gin zituzten hainbat unetan. Honen oste-an, AHOBi sariak banatu ziren eta aur-tengoan eskualdeko hainbat bertsozale

leialek jaso zituzten Zuriñe Asteasu gas-teiztarrak diseinatutako irudi enblemati-koak.

Ekitaldiari eskolako kideek jarritako bertsopaperak abestuz eman genion amaiera, amaiera ezin hobea eskualdeko bertsozaleak omentzea helburu zuen ber-tso urte oparo baterako. m

AHOBi sarien aurtengo jasotzaileak

- **Iñaki Benito del Valle** (ALBEko zuzendariordea)
- **Koxme Elgezabal** (Mungia-ko okina)
- **Jose Bilbao** (Algortako Butron ardandegiaren jabea)
- **Mateo Sagasti** (Mungia-ko bertsozalea)
- **Paia-tarrak** (Algortako familia bertsozalea)
- **Azkargotatarrak** (Algortako familia bertsozalea)
- **Tellitutarrak** (Algortako familia bertsozalea)
- **Aiotarrak** (Erromoko familia bertsozalea)
- **Vidalarrak** (Leioako familia bertsozalea)
- **Lekuetarrak** (Larrabetzuko familia bertsozalea)
- **UK** Uribe Kostako euskal al-dizkaria
- **Bizarra Lepoan** Getxoko Euskara Elkarte-a
- **Berbots** Erandioko Euskara Elkarte-a
- **Bertsozale Elkarte-a**
- **Getxoko Udala**

Iturria: XDZ



Solaskidearen SOSLAIA

Ondoko test erako galderei zuzen erantzunez gero, Lizasori buruzko xehetasun batzuk jakingo dituzu.

1) Nongoa da Lizaso?

- a) Azkoitikoa
- b) Azpeitikoa

2) Noiz jaio zen Lizaso?

- a) 1958ko San Fermin biharamunean
- b) 1958ko San Sebastian bezperan

3) Noiz irabazi zuen Euskal Herriko txapela?

- a) 1986an
- b) 1989an

4) Non bertsozaletu zen Lizaso?

- a) Urolako bertso eskolan
- b) Familia giroan

5) Zein lanetan jardun zuen urte askoan?

- a) Auto salmentan
- b) Liburu salmentan

6) Non egiten du lan gaur egun?

- a) Gipuzkoako Kutxan
- b) Euskaldunon Egunkarian

7) Zenbat seme-alaba ditu Lizasok?

- a) Bi
- b) Hamabi

10ekotxikian Xebastian Lizaso

- 1) Askoren iritzian aurtengo finala historikoa izan da. Bat al zatoz iritzi horrekin?
Finalak denak dira historikoak, baina aurtengoak berezitasun asko izan ditu. Gaztea, emozioz betea, entzulegoa oso entregatua....
- 2) Aurrerantzean zein izango da Lizasoren estrategia plazan kantatzeari begira? Jarraituko al duzu Ega aren bertso bikotea izaten plazaz plaza?
Ez dut estrategia aldatu beharrik ikusten, beti bezala jarraitu nahi dut. Ega aren bertso bikotea izaten jarraitzea ez dago nere esku, antolatzaileenean baizik, eta uste dut jarraituko dugula elkarrekin, zeren saio dexente ditugu aginduak urte berri honetarako.
- 3) Bertsolari bizi, zorrotz eta umoretsua, kantari zolia, komunikatzaile aparta... zer gehiago da Lizaso?
Zer gehiago? Gauza gutxi agian, baina ahalegintzen naiz joandako tokian bertako bat gehiago izaten, jendearengana iristen, irekia izaten.
- 4) Ez al da gauza handia jendea hunkitzeko zein jendeari barre eragiteko gai izatea?
Noski gauza handia dela, baina lortzea asko kostatzen da. Bertsok aukera hori ematen du zenbait gai eta unetan, baina lortu....
- 5) Zeharbidez talde baten osagai zara, alegia, txapelketara aurkeztu ez direnena. Esan banan-banan zerk bereizten zaituen ondoko bertso lagun hauetatik: Sarasua, Euskitze, Pe agarikano. Sarasua: ez dut berak hainbat filosofatzen bertso-tan. Euskitze: ez nintzateke gauza izango bertsogintza kolpera uzteko. Pe a: zuzen erantzutea gustatzen zait, ez bigarren itzulian.
- 6) Zein da zure seme Be aten bertsolari idoloa?
Ega a eta ni.
- 7) Ba al dago Euskal Herrian Lizasok bertsoz jantzi ez duen eskualderik?
Eskualderik ez, herriak bai noski; bertsogintzak leku asko ezagutzek aukera ematen du.
- 8) Plazan nahi duena eta nahi duenean esateko ahalmena daukan Lizaso zelan moldatzen da bestelako lanen diziplinara?
Beharrak eraginda askotan, ez naiz oso zabarra, baina ezta ordenatuegia ere; lanerako talde handiak ez ditut gogoko, errazago da gutxi asko egitea.
- 9) Uribe Kostan makina bat saio eginda zaude. Zelan kalifikatuko zenuke hemengo bertso giroa?
Gero eta beroagoa eta gazteagoa; jendeak lana egin duela nabarmen da.
- 10) Horra lehenengo puntua 10eko txiki bat osatzeko:
Lizaso Algortara / datorren denetan... / bertsozale talde bat / azaltzen da bertan; / berdin antzoki, plaza / edo tabernetan, / oso giro jatorra / dago gehienetan; /



Berbots taldearen familia argazkia eta Mañuren aukera parebakoa besapeak neska gaztez hornitzeko

BEGI-BELARRI

Erandioko bertsojira alaia

Urteroko legez, iazko abenduan Berbots Erandion Euskaraz Kultur Elkarteko lagunak ALBEkookin jarri ziren kontaktuan bertsojira bat antolatzeko asmoz. 2001eko abenduaren 28an egin zen bertsojira hau ez da Erandion egiten den lehenengoa, ezta seguruntzean azkena ere. Kontua da Nerea Elustondo legazpiarrak eta Gregorio Larrañaga “Mañukorta” markinarrak saio alaia, bizia eta oso konpletoa egin zutela. Ondoan bertsojirako hainbat une islatuko dugu, iruzkin eta guzti.



Mañuk naturaltasuna eta pikardia maisuki konbinatu zituen hainbat unetan



Nerea ez zen kikildu Mañuren “erasoen” aurrean eta umore eta ironia handiz erantzun zion bertsoan-bertsoan



“Berbotsu” maskota lagun zutela eman zioten hasiera bertsolariek ekitaldi ibiltariari



Roberto Etxebarria eta Kepa Arrizabalaga soinu-jole eta panderojole gatikarrek ohiko gatz eta piperraz girotu zuten bertso ekitaldia



Nereak bertsojera dotorea erakutsi zuen, zuzen erantzuteari gogor helduz



Bertsozaleek bizkar eman zioten telebistari, begien aurreko ikuskizun biziari irribarre eginez

HIRUSTA



Bertsojartzailea
Ekaitz Larrazabal “Katxo”
Gala
Uribe Kosta
Doinua
Desagertua deitzen didate

1
Begirada bat bota dezagun
Uribe Kosta aldera,
suntsitzailea izan da hemen
agintarien jarrera:
Sopelmar adibide da
Azkorrirekin batera;
belarra zena hormigoia da,
berde-berdetik grisera,
ez zaigu inporta gainera
izatea amaiera,
egunen baten jausiko zaigu
zerua buru gainera.

2
Gure eskualdea ederra dela,
nik hori jakin badakit.
Zu, irakurle, egon al zara
noizbait Agirremenditik,
Billano lurmuturretik
eta Bolue aldetik?
Leku hoietan fabrikak eta
autopista ikusirik,
batzuk badaude poz-pozik
ta poltsikoak beterik;
Uribe Kosta dirua al dago
Ama Lurraren gainetik?


3
Kontrolaezina izaten baita
eraikitze kondukta,
noizbait eraiki behar da baina
ingurunea zainduta.
Adibidetzat hartuta
Galea Golf aipatuta,
gune berderik Getxon badago
hori izango dugu-ta,
horren kontra egin burruka
herri guztia batuta,
gure eskualdea ez izateko
inoiz ere zanpatuta.

Euskara ikasi dute



Urdulizkoa da Izaskun. Nahiko kostatu zaion arren, ederto egiten du berba euskaraz orain.

—Non ikasi zenuen Izaskun?
—Hasi nintzenean, nire herrian, Urdulizen, ez zegoen euskaltegirik; beraz Sopelara joan nintzen. Sopelako AEKn ikasi nuen Josetxurekin.
—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?
—Euskalduna sentitzen naizelako eta beharrezkoa delako.
—Zergatik AEKn?
—Aholkatu zidatelako. Ikasteko era guztiz ezberdina zela esan zidaten, eta egia da. Gainera, ordutegi egokia zeukaten.
—Zer da gehien kostatu zitzaizuna, zure unerik txarrena ikasle zinenean?
—Baldintzazko aditzak ikasi nituenean dena pikutara bidaltzeko gogoak izan nituen. Nork-nori-nor, lehenaldia ere oso gogorra egin zitzaidan.
—Zein da garai hartako zure oroipenik onena?
—Gelako giroa, ederra zen.
—Gaur egun euskara erabiltzen duzu?
—Egia esan, gutxi. Erosoagoa sentitzen naiz erdaraz hitz egiten eta askotan horretara jotzen dugu. Baina nire alabari (Izaskun haurdu n dago eta laster ama izango da) euskaraz hitz egingo diot, seguru.
—Eta, EGA ateratzeko asmorik bai?
—Etorkizunean, agian. Baina oraingoz ez. ^m





D eredua nagusi da Getxoko ikastetxeetan

Apurka bada ere, gero eta haur gehiago dira Getxon **euskaraz** ikasten dutenak

Hilaren erdi aldera ikastetxeetan matrikulatzeko epea zabalduko da eta horren gainean Getxoko udalaren Euskara Zerbitzuaren eskutik zenbait datu eskuratzeko aukera izan dugu.

Azpiko ezkerreko grafikoan ikus dezakegunez, hiru urteko haurrak matrikulatzeko orduan, guraso gehienek D eredua aukeratu dute euren seme-alabak ikastetxeetan matrikulatzeko orduan (%46,29). Bigarren aukera A eredua izan da, gurasoen

%31,29k eredu hau aukeratu du. Urrunago, B eredua geratzen da, %22,40. Azken urteotako ikaste-ereduen bilakaerari dagokionez, apurka-apurka bada ere, euskara hutsezko ereduen etengabeko gorakada eta erdarazkoen beherakada ikus daitezke (azpian, eskuineko grafikoak). Baina progresio hau oso motela da, eta gauzak horrela segituz gero, hogeitertetik gora beharko dira ume guztiek Getxon euskara hutsean ikasteko. ^m



Asteburu-pasa egin zuten lagunetako batzuk euren trebeziak erakusten

Elurretan euskaraz eskiatzen ikasten

Bizarra Lepoanek lanean jarraitzen du getxoztarrok aisia eta kirola euskaraz gozatzeko aukerak izan ditzagun. Horren adibide dugu urtarrilaren 11, 12 eta 13an Ipar Eskian ikasteko zein aritzeko antolatu zuen asteburu-pasa. Aurtengoa bigarren aldia izan da eta esan behar da erabat arrakastatsua izan dela; izan ere, iaz 35 lagun izan ziren, eta aurtun kopuruak gora egin du, 51 lagun elkartu dira eta. Gainera, aurreko urteko askok errepikatu egin dute aurtun, eta hori, zalantzarik gabe, esanguratsua da.

Egonaldia Jakan izan bazen ere, ikastaroa egitera eta eskiatzera Somporteko eski estaziora igo ziren. Parte hartzaileen artean maila ezberdinetako jendea zegoenez, lau taldetan banatu ziren, bakoitza bere begirale edo trebatzailearekin: Tolosa aldeko euskaldun peto-petoak eta jator-jatorrak. Horrela, bai eski-oholak lehenengoz jartzen zituztenek, bai ibiliak zirenek izan zuten zerbait ikasteko edo hobetzeko aukera.

Jakin izan dugunez, Bizarra Lepoan, beste asteburu-pasa bat prestatzen ari da, leku berera eta asmoarekin martxoko lehen astebururako, hau da hilaren 1, 2 eta 3rako. Aurrekoak izandako arrakasta ikusirik izena emateko adi ibiltzeko gomendatzen dizuegu, lekurik gabe lotu ez zaitezten.

Kanta liburuxka berria eskuragai



Lagunen artean kantatzeko hain hedatua zegoen ohi-turari eusteko asmoz, kanta liburuxka berria argitaratu du Bizarra Lepoan Euskara Elkartek UK aldizkariarekin laguntzaz. Guztira 70 kantatik gora; batzuk tradizionalak eta beste batzuk gaur egungoak. Liburuxkan ez ezik, kantak Getxoko Euskararen webgunean ere eskuratu daitezke (www.getxo.net/euskarazerbitzua). Klik egin eta nahi den kanta jaits daiteke. Paperezko edizioari dagokionez, 10.000 ale argitaratu dira eta eskuratu nahi duenak Euskara Elkartera jo dezake zuzenean: Itxasgane, Karitatea 1. Algorta (arratsalde).

[baicomment]



ZORIONEZ eta oso gutxi badira ere, badauzkagu esku-aldean euskararen aldeko apustua egiten duten merkataria-riak. Hori da Algortako Sarrikobaso kalean dagoen Sarintel Informatika eta Telekomunikazio enpresa berriaren kasua. Kanpoko errotulazio guztia euskara hutsean jarri dute eta badira euskaraz zerbitzua emateko gauza: infor-matika salmenta eta konponketa, web orrialdeak...

[nocomment]



NON ETA Berangoko Eroskin! Han ikusi dugu karteltxo hau. Aspaldian dago jarrita eta irauten badu errua gurea da, kexarik ez adierazteagatik, seguru!

GETXOKO EUSKARA ZERBITZUAREN DOAKO ITZULPEN ZERBITZUA HERRIKO TALDEEI

Getxoko Udalak, bere Euskara Zerbitzuaren bitartez, herriko elkarte eta taldeei itzulpen zerbitzua eta euskarazko testuen zuzenketa zerbitzua eskaintzen die urte osoan zehar. Beraz, herriko elkarteek antolatzen dituzten ekitaldi publikoetan sortzen diren idatzizko materialak itzultzeko zerbitzua eskaintzen du Udalak: kartelak, gonbidapenak, esku-programak, esku-orriak, txartelak eta abar. Zerbitzua doakoa da, baina 10 orrialde baino gehiagoko testuak ez dira itzuliko. Jakina, erabilpen partikularretarako diren testuak ez dira itzuliko. Interesatuak Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jarri baino ez dute egin behar:

T.: 94 489 02 18 / Faxa: 94 489 02 11
E-posta: euskara.teknikaria@getxo.net

[akabuko punte]

[bertako euskeran ganen]

Jose Miguel Begoña



Testua: Urtzi Iglesias Erretratua: Asier Menthaka

Jose Miguel, Larrabasterrati ondartzara bidean dauen Goikoetzen yaio san oin irurogetamar urte. Baserrin bear eiten ibil da beti, baie kamionero bere ixen da. Gausa oneekaz eta beste batzuen ganean eon gara beragas berbetan eta kontatu doskusan gausetariko batzuk leiduteko aukera ixengo dogu amen.

—Jose Miguel, seu beti bixi ixen sara emen?

—Bai, ementze bertan jaiota. Jaio nintzen mila ta bederatzireunde otamaikan, ustaillen otairun. Bai, etzen, aarik eta ogetabost urterarten beti baserrin, emen baserriti bixten gintzen gu, emen jornalik es san etorten ifiondi bere baserriti baino. Itten gendun a, Barinatzen ganen selan dausen tzale grupo andi bet, ortze eukitten gendun rega-diok edo erregateko serak, ortze biximodu ataraten gendun. Bos sei urtegas emeti urten barik. Nik, eguno lelengo Plentzire yon nintzen amalau urte euki nendusen, e? Plentzi beittu non daun, bertan, ta amalau urteas. Algortara geiau, ferretere-rire, batera bestera... Nire lagunek eun baten esausten: “yon bear domekan Plentzire”, “bai, ta diru billeterako?” bueno atarako dogu... ta billete bi topa gendusen estasiñun pika barik, botata. Ta areas billeteas, koxi... lagunak emausten niri *ida* bakarrik, ta beste, *ida y vuelta* bera lotu san. Yon

gintzen Plentzire, gero etor gintzen ensegida etze-
ra, ta etor san interbentore ta klaro nik es neun euki bueltarik es eseberes, bestek bai. Ta “bueno su emen, Bilbora eroangosut ta kartzelara sartu bitzut” ni larri, bildurrez. Ta Sopelara eldu nin-tzenen, motoristak atea sabalduiosten: “salta, mekaguen!” ta... (barreak)

—Gerra ixen sanen gastetxu siñean, nola bixi sendun a?

—Gerran emen eon nitzen. Emeti, etzen atzeti, orti eon siren egunetan pasten italianuk. Bein sartu siren barrure, baserrire, esaten nire aitteri: “ea, se partidure pertenesitzen dosu suk?” Ta nere aitte ikaratute, bildurres, se egunero ittenotzen igual ta... ta “nik es dakitt ser dan ori, es dot idea-rik...” ta beste batek, teniente batek diñotzo: “itzi, itzi orreri geldi se onek aldeanuk es dakie partidu ser dan bere, emen baserrin aisлата bixi dires ta es dakie...” Yon san etzera, ta aspiren ganen, euki

gendun armairu bet, atara estutzutzu bet, ta karne euki gendun an partido nacionalistana. Ta koxi karneta ta sutera bota, lasata lotu san.

Ta gero, osten be, yoten siren Meñakosera, ara yoten siren egunes, egunes an eoten siren ostute; se emeti pasten eon siren denporan, igual hamabost eun edo, italianok ta morok be pasa

beres ordun. Ori kamiñu be (Larrabasterrati ondartzetara doanas ari da) esan eoten, e? Eoten san estarta bat estu estu baia gurdies be tzarto yoteko. Eoten siren etze andi batzuk, onek, Marinonak edo kanpora ameriketara yon siranak, etze banaka bat, gitzi, se osten dana baserrik, Sopela dana ixan san lurreti bixi siranak. Emeti

“Itzi, itzi orreri geldi se onek aldeanuk es dakie partidu ser dan bere, emen baserrin aisлата bixi dires ta es dakie”

siren. Dustik pasa siren emeti, orti bideti, Plentziti etorten siren. Gaues es sin pasten.

—Gerra osteko urteak be gogorrak ixengo siran, esta?

—Oso gogorak. Nik au etze esetu dot ure barik eta argi barik, nik emen argi elektriko imiñ sanen amasaspi urte euki nendusen ia, e? Emen karbu-roas...ba, posik bisten gintzen ordun bere, ondo. Serarik es, e? Bisiorik es oingo les, gauetan orti jaietan, pentsa bes. Yon bai, tabernara yoten gint-zen; an sarrak eoten siren ta gu gastetxoak, ta aren gausak entzun ta beti juergatxoa eoten san bai.

dana ikusten san, dana eoten san labraduta, ta beiek, ganadu eta... oiñ eseberes, oiñ ori, amaittu dires.

—Kamioiagas ibilten siñean su, esta?

—Bai, mile ta berrogeita amaseirik ona, solda-duskati etor nintzenen. Obratan, kanpora bere bai, peninsula dustitti, ta gero Altos Hornosen, akabuko urtek Altos Hornosen ibil nintzen. Ibil iñ bear da ataratako sera.

Asikera txarto, se ondartzara yoten nintzen, Bilbora eroaten gendun area, Bilboko obretara, ta ondartzan kargaten gendun eskure paleas, baka-

“Eguno lelengo Plentzire yon nintzen hamalau urte euki nendusen”

—Ta erromeritara es sintzen yoten?

—Erromerik, bai, erromerik beti. Emeti serara, Urdulis, Sopela, Plentzi, Leioa, Loiu nos o nos, Loiu asautzu eoten san eta Algortara, Romora, Mercedesetan edo Areatara bebai. Es san eoten kotzerik es esebes, bisikletarik pes. Oiñes edo tren-nen ospabere. Algortati etzera oiñes etorten nint-zen. Se klaro kosta treña erreal bat edo bi, ta gaste gintzenes ensegida, Askorritti, emeti, etzera oiñes. —Eta ondartzara yoten sintzen?

—Ondartzara beti, egunero es, bearregunetan es, domekatan edo olan, edo garbitzeko seoser bea-rra... beien, ganadun satzak ataraten yoten gint-zen ara bañaten; esan oten dutzarik es esebere. Bilbon bes es eon dutzarik eta emen eoteko modun dutza, oingo les pentzatzeosue egunean egunean dutzata... ori es da... antzipere!

—Oso kanbiata dao Sopela, ezta?

—Emen esan eoten etzerik... emeti ara treña daoen lekurarten, trenbiderarten... bat, baserri bet, ta giau esan eoten. Gero Larrabasterra, bat, se Larrabasterra imiñotzan estasiñuri usena baserri bat eon salako, Larrabasterra. Oiñ ogei urte edo bota deure baserri. Ta apeaderutxu bet eiñ, ta Larrabastera imiñiotsan usena. Ta itzasorantza au isetesan askeneko etze, au askeneko. Ni gastetxu nintzenen, emeti atzerantza atara ta beiek botat-zen siren, euren airera ibiltzesen, es san eoten ese-

rrik e? Bakotzak bere kargateun, amar tona inge-ru, ta ordubete tardatenun kargaten. Nik asko karga dot Arrigunagan, Ereagan bere bai, eta emen Sopelan; baia len plaiatati, esan eoten bes-terik.

Akabuko urten eroan dot nik bere Altos Hornosera, baia olan es; paleas, eskabadore, kar-gateutzen, iru lau biaje... baia ori deskantzu isten san, an paran ta benga, kondusidu bakarrik. Nik eguno lelengo ikusinun a pale, motordune, a isango san irurogei ingerun, amen plaian. Oiñ daus kamioiak kargaten, trailera, e? Palakada bateas, ta ganera sakudidu in bear apurtxu bet se larri igual. Aldatute dusti, lengorik esebere.

—Ta orain jubilaute, se eiten dosu?

—Badaroas sei urte ia, onbre irurogetamar urte dekodas. Ba, solun apur bet, gero... peskan ta yoten nas, paseo berebai tzakurrekas. Bixi feno-meno oiñ! Elegante oiñ bixi! Pasten da... au laburtxu da, tramu laburre da au, baie ori danari pasako yako, e? m

Berbak / Aspire: taloa egiten zen lekua / **Estutzutzu:** kutxatilatxo / **Esan:** ez zen / **Koxi:** hartu / **Lasata:** lasaituta / **Ostute:** ezkutatuta / **Bisten:** bizitzen

Gureberbakere 7 BERBA JATOR BATZUK

Testua: **Xabi Bilbao**

Hemetik aurrera ikusi ingo duz, apurke-apurke, gure euskerako berba batzuk, beste leku batzuten entzuten eztirezenak. Hasteko, emen doaz esklamaziño batzuk:

• **áiko:** sorprese (ezusteko) erákutziteko erabilten da.

-áiko! Emen bere OTA ímingo dáudela? Akabun patinéten ibil berko gara. -áiko zélau gibélak deközuzen! Bázkalduteko sásoie eta óndiño oian (ohean)!

• **áze:** Zeozek balio edo gánora gitxi dékola esateko erabilten da.

-Millóiak paga Atlétire ékarteko eta eztau kárra bere iten; áze fitxaje in dun orréaz! -Zigarro bat aguan eta irráti biztúte, áze gánore deközun bear iteko!

• **ap:** Norberak hotza iyérriten daunen erabilten da.

-aaap!! Ze hotza! Gero ésatén daude efekto inbernadóroaz éztaule hotzik iten negun.

• **ára:** Zéozen gánera atenziño géituteko erabilten da.

-ára zélau txakurre! Pentzá lei beie dala. -Beti dabil trapu záharrakaz yantzíte, eta ára non agértuten dakun yakéaz ta korbátaaz!

• **bestalá:** Beste zeozet hoba dala éstateko erabilten da.

-Euro zélan manéja irékatziten dábiltzézela? Bestala euro bátzuk émoten bádoskuez! Pozik manéjako duz! -Kanta ingo dostezule abéstixu bet gitárreaz? Bai, bestala zauz ólantxe isilik!

• **biénke:** Beste batek berbak kasik agutik kendu doskuzela esateko erabilten da.

-Ule ebágiten yon ber dózule? Biénke, pentza lei nastafári bat zarala órrekaz úlekaz. -Móbilléaz kantzáta zauzela? Biénke, nípere egun baten Galéatik bótakot.



gaizka escudero / villabotas-ekoa


Magrete

mahats saltsan eta sagarrarekin

Lehenengo mahats saltsa egingo dugu. Ozpina azukrearekin batera su ahulean jarriko dugu sutan nahasketa loditu arte. Gero okela saltsa apur bat eta mahats sikuak gehitu. Hauek oso arin egiten dira. Badaukagu saltsa. Bestetik, zartaginean gurina sutan jarri, gero sagar puxkak (gure gustura zatituak) azukrearekin batera bota eta mugitu azukrea karamelo bihurtu arte. Listo. Magretea egiteko, aholku bat: gantza dagoen aldean ebaki luze bat egin alde batetik bestera, ze hori egin ezean, okela zati hau sutan jartzerakoan bildu egingo zaigu. Magretearen alde hau egin behar da lehenengo, magreteak berak botako duen koipean egingo dugulako. Gero, zartaginetik atera magretea, xerratan zatitu eta atzera sutan jarri beste aldetik. Horrela zenbat egin nahi dugun ikusi ahal izango dugu. Okelari gatz lodia eta pipermin apur bat bota. Platera aurkeztea baino ez zaigu geratzen. Adibidez, azpiko argazkian agertzen den moduan. On egin! ^m

osagaiak (bi lagunentzat)

sagar bat • mahats sikuak • azukrea • ospina • gurina • magrete eder bat



itsaso arana / jolastoki-koa

Ardoak

Bizkaiko txakolina

Mendeetan zehar Bizkaia mahasti handi bat izan da. Adibidez, Portugaleteko sortze aktan honako pribilegioa eman zion Juan I erregeak herriari: kanpoko ontziek ezin zuten herrian beste leku batzuetako ardorik deskargatu, behintzat herrian bertan egindako beste horrenbeste txakolin ontziratzen ez bazuten.

Bizkaiko Txakolina jatorrizko izendapena Bakio eta Lekeitioko kosta-mahastiak hartzen ditu: Enkarterrietan ere badira mahastiak, eta Balmasedan, Güeñesen, Galdamesen, Zallan eta batzuk Orduña aldean. Bodegak, aipatu ditugun inguru horietan daude.

Batez ere bertokoak diren mahats mota bi erabiltzen dira txakolina egiteko: hondarrabi zuri eta hondarrabi beltza. Oso mahats usaintsuak dira biak. *Folle blanche* mahats mota ere onartzen du jatorri izendapen honetaz arduratzen den Kontseiluak. Mahats-biltzea udazkenaren hasieran egiten da, azukrea eta garraztasunaren arteko oreka egokia izaten den momentuan.

Ardo hauei dagokionez, ezagunenak zuriak dira. Ardo arinak dira, sikuak eta edateko oso errazak. Euren graduazioa 9,5 eta 11,5 artekoa izaten da. Badira txakolin gorriak, ez da horrenbeste egiten eta ahoan ikutu garrazt apurra izaten dute; graduazioa zurien parekoa izaten da. Eta, azkenik, txakolin beltzak geratzen zaizkigu, hauek ezezagunenak dira eta oso gutxi produzitzen dira. Hauetan bai, garraztasuna nabaria da.

Ardo honen produkzioaren parte txiki bat atzerrira exportatzen da, beste bat Madril eta Bartzelonan banatzen da,

Bidebitarte

Getxon sortu zen lehenengo txokoa



Bidebitarte txokokoek Uribe Kostako txokoen elkarte edo intertxokoa bultzatzen ari dira. Helburua, txokoak gizarteratzea.

Uribe Kostako txokoei buruzko atal hau estreinatzeko, zein Algortako “Bidebitarte” txokoa baino aproposagorik? Sarrikobaso kalean dute egoitza eta 1960ko maiatzaren 5ean jarri zuten martxan. Txoko hau Getxoko lehenengoa da eta 50 bazkide ditu; haien artean txokoaren sortzaileetako bi: Iñaki Mardaras eta Patxi Letona.

Bidebitarte txokoan sartzerakoan nabaritzen dugun lehenengo gauza janari gozoaren usaina da. Asteburuetan zein astean zehar asko dira han elkartzen diren bazkideak, hitz egiteko, egunkariak irakurtzeko edo eta ardo berezi batekin gazta goxo bat dastatzeko. Anton *Zapatones*, gaur egungo presidentearekin egon ginen txokoaren nondik-norakoak ezagutzeko.

—**Zergatik Bidebitarte izena?**

—Bidebitarte kalean dagoelako. Hala ere, eraiki zutenean, 1960an, Francoren garaian, izen euskaldunak guztiz debekatuta zeudenez, *Sociedad deportiva de fomento de la pesca fluvial* bataiatu zuten.

—**Zein da zuen txokoaren berezitasuna?**

—Berezitasun ugari ditugu; “Bidebitarte” Getxoko lehenengo txokoa izateaz gain, okela erretzeko inguruko parrillarik onena dauka; metalezkoa, garbia, bildots osoa erre daiteke...

—**Zein da txokoaren funtzionamendua?**

—Txokoa gurea da. Bazkideok 120’20 euro ordaintzen ditugu urtero. 50 bazkide baino ezin gara izan eta sartu ahal izateko bazkideen hiru laurdenen oniritzia eduki behar da. Bakanterik dagoenean bazkideen semeek lehentasuna dute.

—**Eta txokoan sartu ahal izateko?**

—Bazkideak ez direnek, halabeharrez elkarteoko norbaitekin etorri behar dute.

—**Emakumeak sar daitezke?**

—Lehen txoko honetan, inguruko gehienetan bezala, urtean behin, San Lorentzo egunean baino ezin ziren sartu. Orain gauzak aldatu egin dira eta asteburuetan, jaiegunetan eta jaiegunen bezperetan sar daitezke, beti elkarteoko norbaitekin eta zuzendaritzaren baimenarekin. Hemen ezin dute janaririk prestatu eta guztiz debekatuta daukate sukaldean sartzea.

—**Zer da “Uribe Kostako Txokoen Elkarte”?**

—Guk, Bidebitartekook, Alangoetxekoekin batera sortu dugun elkarte da, inguruko txokoak harremanetan jartzeko. Dagoeneko 16 txoko gaude elkarte berri honetan. ^m



Janedan
urdaitegi

Adituak gainera, berriketa
delicatessen produktuetan

Bidebieta, 4 beheia
Tel. 94 676 58 79
SOPELANA

Alangobarri 10
Tel. 94 491 58 37
ALGORTA

JUAN MARI ARZAK

“Inon ez da Euskal Herrian b ezain ondo jaten”



Juan Mari Arzak Arratibel donostiarrak 59 urte ditu eta 35 baino gehiago daramatza sukaldean lanean, 1965ean bere sukaldaritza ikasketak Madrileko ostalaritza eskolan bukatu zituenetik. Geroago bere ama Francisca Arratibelen jantokian eman zituen hiru urte Frantziara abiatu baino lehen. Han praktikak egin ondoren, berriro itzuli zen etxera eta soldadutza egin eta gero lanean hasi zen. Juan Mari Arzak-ek sari ugari irabazi ditu: Michelin Gida ospetsuak hiru izar eman dizkio eta Europako Gastronomia Akademiaren sari nagusia da. 1967tik Arzak ezkondata dago eta alaba bi ditu, Marta eta Elena. Bigarren honek aitaren urratsak jarraitu ditu; sukaldaria da eta Juan Mariaren jantokia eramaten hasi da.

—**Zergatik aukeratu zenuen lanbide hau Juan Mari?**
—Orain dela 40 urte hasi nintzen amaren jantokian. Hasieran aparejadorea izateko ikasi nuen baina Madrilen ostalaritza ikasten zuen lagun batek sukaldari izateko animatu ninduen eta laster ikusi nuen bide honetatik jarraitu behar nuela.

—**Zein da zure platerik gustukoena?**
—Kabiarra, fua eta hainbat plater gus-tatzen zaizkit baina bakar bat aukeratu behar banu, arrautza frijituak pikilloko piperrekin aukeratuko nuke.

—**Euskal Herriko sukaldaritza berria ala betikoa; zein nahiago?**
—Nire ustez, munduan hiru sukaldaritza mota ditugu; plantxan egin daiteke-na (lanpernak, txuletak, erreboiloa,...), herri sukaldaritza, betikoa (indabak, makailua, txapiroiak eta abar) eta guk geuk egiten duguna. Niri hirurak gus-tatzen zaizkit.

—**Ondo jaten da Euskal Herrian?**

—Inon baino hobeto eta gainera de-mostratu daiteke. Adibidez, propor-tzioz, Michelin gidak, munduan dago-en neurtzailerik onena denak, inon ez ditu Euskal Herrian baino izar gehiago banatu.

—**Hemen ez ezik, non gehiago jan dai-teke ondo?**
—Frantzian, Txinan... leku askotan jan daiteke bapo-bapo; baina, herri mailan, inon ez Euskal Herrian bezain ondo. Hemen jendeari asko gustatzen zaio ondo jatea eta ia edonork bazkaltzen du etxetik kanpo noizean behin. Adibidez, nire jantokira hurbiltzen den jende gehiena erdi mailakoa da; egun berezi baterako aurreztu duen jendea.

—**Jantokietan modarik ba al dago?**
—Leku guztietan bezala jantokiak noi-zean behin modan jartzen dira hemen ere, baina Madrilen adibidez fama ho-rrek urteak iraun dezakeen bitartean, Eus-kal Herrian ospea iragankorragoa da.

—**Zer nahiago, bazkaria prestatu ala jan?**
—Nik neuk prestatzea nahiago dut.

—**Sukaldariak sukaldean jaten dute?**
—Ez dakit besteez zer egingo duten, baina nik behintzat bai.

—**Zer osagai behar dugu bazkari on-**

ona gozatzeko?
—Lagunartean egotea. Lagunekin gus-tura baldin bazaude, berbetan, barreak egiten, giro onean, bazkari on baten aurretik, hori nire ustez ezin da hobetu.

—**Oilaskoa eskuz jatea bekatua al da?**
—Oilaskoa eta beste hainbat gauza, itsaskiak adibidez, eskuekin jan behar dira. Jaterakoan lehenengo eta behin, erosotasuna bilatu behar da.

—**Mahai-zapia lepotik eskegita, hanke-tan edo non demontre utzi behar da?**
—Nire ustez gauza guztiak logikari jarraituz egin behar dira. Zertarako dira mahai zapiak? Eskuak garbitzeko eta arropa ez zikintzeko, ezta? Beraz, jaten dugunaren arabera, agian lepotik eskegi behar dugu, zergatik ez?

—**Zer ez da sekulan egin behar jan-toki baten mahaian?**
—Inoiz ez da gizabidea galdu behar. Jar dezakegu mahai zapia nahi dugun tokian, batzuetan eskuak erabiliz jan daiteke..., nahi duguna egin dezakegu; dena onartuta dago gizabidea galtzen ez dugun bitartean.

—**Ez loditzeko modu bakarra gutxia-go jatea al da?**
—Hor ez dago zalantzarik. Horretarako formula bakarra dago: EPU. Hau da, Erdia Platerean Utzi. m

“Plater bakar bat aukeratu behar banu arrautza frijituak pikilloko piperrekin aukeratuko nuke”

“Gauza asko eskuekin jan behar dira”


“Ez loditzeko formula bakarra da: EPU. Hau da, Erdia Platerean Utzi”

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

GOIZEAN



Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak -

Ordu a Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITUR -



HIRURAK

T: 430 53

Sarrikobaso 15

Erosketa etxera eroaten da



ORDUTEGIA

Lan egun eta zapa
tuetan:
9:00-14:00 / 17:30
21:00
Domeka eta jai egu

dena - ona
supermerka -

Gatzarri e 94 676 19 99LARRABASTE -

Jolastoki

kalitatea arau

Badaude ahalegin ekonomikoa me-rezi duten plazerrak, adibidez, Jolastokin bazkari edota afari bat gozatzea. Gaur egun hirugarren belaunaldiak zuzentzen du Jolastoki. Izan ere, atek lehenengoz 1921. urtean zabaldu zituzten. Jolastoki klasiko bat da Bizkaiko jatetxeen artean, etengabe berritzen den klasikoa. Hara bagoaz hantxe hartuko gaitu Begoña Beas-koetxea metreak; ardoekin zalantza-rik izanez gero, Itsaso Aranak, bere alabak eta somelierrak, euren bode-gan duten ardo mordoan artean ego-kiena aukeratzen lagunduko digu. Sukaldean burua Sabin Arana da, be-ti garaian garaiko lehengaiek inspira-

tutako platerak prestatzen. Neguan izarrak dira ehiza: oilagorra flanbea-tuta armagnac-era, edo galeperrak eu-ren saltsan –ez zarete damutuko–, barraskiloak –gogoangarriak– eta ba-razkiak. Laster, martxoan, etorriko dira perretxikoak, erreka-izokina... Erne egoteko modukoa! Karta zabala da, baina zalantzak badituzu aukera-rik zuzenena menu-degustazioa au-keratzea da. Hostalarien bizilekua euren lantokia da; Jolastokin gustura bizi dira eta bezeroak igartzen du. m

JOLASTOKI / Makalen etor. 24, Neguri
Bataz besteko prezioa: 7.000 /10.000 pta.
Ibita: Igande eta astearte gauze, astelehenak
Erreserbak: 94 491 20 31



1921ean zabaldu zituen atek lehenengoz Jolastokik gaur egungo jantokitik hurbil. Duela 17 urte, gaur egungo etxera aldatu ziren.

barrak



Irrintzi

egunero 30 pintxo mota

HANDIA eta atsegina da Irrintzi taberna, gozoa, harria eta egurra gustu onak batu ditu han. Horma zuriak burdinazko edergarriekin apainduak daude eta tabernak duen egurrezko barra luzea, mota guztie-tako pintxoek dotore janzten dute; bakai-laozkoak (tabernaren pintxorik famatue-nak eta, jabearen arabera, estimatuenak), kroketak, foie, piper beteak, kokotxak pis-toarekin... Egunero 30 pintxo mota ezber-dinak baino gehiago egiten dituzte hango tanernari saiatuek. “Irrintzi” taberna mo-kofinen paradisua da. Arte mota berezi

honen arduradunak izen propioa du; Ma-rige, orain dela 23 urte hango sukaldaria, hau da, tabernak atek ireki zituenetik. Bere pintxoek Irrintzi Areetako tabernarik ospetsuena eta hornituena bihurtu dute. “Bezero bakoitzak bere pintxorik gogoko-ena du eta hortaz ezin dugu bat bera ere egiteari utzi, bestela hamaika entzun beharko genituzke”, azaldu zigun José An-gel, tabernako jabeak.

IRRINTZI TABERNA
Particular de Arramendi z/g (Areeta)

Erosketa etxera eroaten da



ORDUTEGIA

Lan egun eta zapa-tuetan:
9:00-14:00 / 17:30-21:00

Domeka eta jai egu

dena - ona
supermerka -

Gatzarri e 94 676 19 99LARRABAS -

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34



etxean, hilabetero
jaso nahi baduzu
deitu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
aldizkaria@euskalnet.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

irabazi bi lagunentzako bazkari bat GARDOKI Jatetxean



Nor da?

- *Futbol jokalaria da. Erdilaria.*
- *Lehenengo mailako euskal talde baten jokalaririk garrantzitsuenetarikoa da.*
- *Beste talde batean hasi zen.*
- *Bere aita talde hartako presidentea izan zen.*
- *Euskalduna eta euskaltzalea, gure selekzioarekin jokatu izan du.*

Gardoki

Jatetxea



Mendieta kalea 67
Sopela
Telf. erreserbak
94 676 31 59

*Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean
bi pertsonentzako menu berezia zozketatuko dugu:*

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Patua ez duzu zure alde, baina lasai! Egun batean egin beharrekoa ez da zuk espero bezala aterako eta hurrengo egun batean ezta ere, baina perfekzioarekiko erakusten duzun obsesio horrek ez dizu onurarik ekarriko. Horrela

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Inoiz baino indartsuago zaude. Zeure buruarekiko erakusten duzun konfiantza horrek asko lagunduko zaitu, batez ere hilabete honetan zure familian egon daitezkeen gorabehera ezberdinei begira. Izan ere, zu zeu izango baitzara momentu

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Bakardadea zenbait egoera eta unetan ona izan daiteke, beraz ez zaitetz horregatik larritu. Pentsatzeko astia izango duzu eta bada garaia aurreko urtean erdizka utzitako hainbat gauzatxo amaitzeko. Ohitura txarra da bidean topatzen duzun lehenengo oztopoari erre egin

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Bizitza profesionalean izugarrizko aurrerapausoa emango duzu eta horrek egonkortasuna sortuko du zeure inguruan. Txikitako beldurrak barru barruan dituzu oraindik. Ordua da horiek gainditu eta zeure benetako izaera garatzen

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Zure ametsak errealitate bihurtzeko sasoi ona da eta nahiarduratu beharko zenuke, besteei ibiliko zara, zure haurtzaroko duzun guztia egiteko gai izango zara egunotan; beraz, ez itzazu aukerak alferrik galdu eta zure irudimenari ez ezik zeure intuizioari ere jaramon egin. Denak den, ez dituzu ametsak eta ezinezko mirariak nahastu behar.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Batez ere, zure osasunaz gehiagotik hainbeste erreparatu gabe. Bestetik, ez duzu ikasteko asmozko Irregularra zara gero! Batzuetan asko eta beste batzuetan gutxi? Osasun oreka lortzea izango duzula lagun berriak egitea. Isolatuz jendearengan konfiantza apur bat edukitzea.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Hilabete honetan goibel samar hainbat kontu burura etorriko zaitzazu eta. Hauek gainditzeko lagun bat dela, beraz, ahazten ikasi beharko zenuke. Gogorra eta urteari hasiera emateko akatsez ere ikas dezakezula gogoratu, oraindik asko baituzu ezagutzeko.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Lasaitasunez hartu bizitza, gauza hauek gertatzen dira eta! Badakizu bizitza honetan traizionatu zaitzakeen bakarra lagun bat dela, beraz, ahazten ikasi beharko zenuke. Gogorra eta urteari hasiera emateko akatsez ere ikas dezakezula gogoratu, oraindik asko baituzu ezagutzeko.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Maitasunak gero eta gehiago harritzen zaitu, sekula egiteko gai izango ez zinen erokeria bat egingo duzu zure alboan nahi duzun pertsona horrengatik. Honek zer pentsatu emango dizu, orain arte erridikulua iruditzen zitzaizun ikuspuntua

META



(Irailak 17 urriak 16)
Ez ezazu zeure burua soilik begiratu, aski da inguruari begirada bat ematea norbaiti eragiten ari diozun minaz konturatzeko. Hain harro ibiltzeare, momentu aproposa da lagungarri iruditzen bazaizu ere, kezkatzen hasi beharko zenuke, berriro oinak lurrean jartzean

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Urte berria indarrez eta ilusioz hartu duzu. Buruan ideia eta proiektu asko dituzu eta momentuz zirriborroak ez badira ere, momentu aproposa da bideratzen hasteko. Hala ere, ekonomikoki erantzukizun handia eskatu dizute ideia

NEGUA




(Azaroak 16 abenduak 20)
Orte berria bizitza berraztertze berria bizitza berraztertze ez ezazu serioegi hartu horretara ohituta bazaude ere. Ezin da egun batetik bestera guztiarekin hautsi eta bizitza berria hasi. Buruan aspaldian bueltaka duzun horrek zoratuko zaitu, onartu ezazu eta aurre egin. Bizitza zuk

Lur planeta. Lurreratzen.



Bitakora koadernoak: planeta batera hurbiltzen ari naiz. Ezin dut zehaztu zein den, irakurtzeko betaurrekoak galdu ditut-eta ez dut mando koadroa ondo ikusten. Susmatzen dut laster nerbioek jota egongo naizela. Argiaren abiadura hartuko banu lehenago helduko nintzateke, baina pilota eskolan esan zigutenez... hori ez da komeni.



Misio zehatza daukat. Bizimodu berria abduzitzea..., ipurtzulooan errekonozimendu taktila egin eta bere jatorrizko lekura atzera bidaltzea ahalmen berezi berriekin. Adibidez, txintxirrika ibiltzea ahokorapilo esaten duen bitartean. Horrek argi utzi beharko luke gure espeziearen nagusitasuna . Gero inbasiorako prestaketak egin beharko ditut. Nire aitak esaten zidana seme, abduzitu, abduzitu... ahal duzun guztia

Bata edo bestea. Edo planeta hau gero eta handiago da edo ailegatzen ari naiz. Laster nerbioak nitaz jabetuko direla susmatzen dut... Lurra planeta da. Espazionteria basamortu batera bideratuko dut eta modu absurduan itzuli batzuk egin, lurra zuzenean hartu barik. Ni bai estrategia handia! (Leherketa bat entzun da eta espaziontzitik txinpartak ateratzen hasi dira) Zeozkerak doa ondo, ezin dut ezin dut ontzia kontrolatu! Kabinak korapilatutako zeozerk leherketa eragin du... Bitakora





TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15



MUNGIA

OKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076

ALGORTA



1957 Antxoen inbasioa Portu Zaharrean

Portu Zaharreko **bizilagunek** zortzi tonatik gora **antxoa** batu zituzten egun berean

Algortako Portu Zaharrean antxoa mordo ikaragarria sartu zen 1957an auzoko guztien harridurarako. Ondoko argazki historiko honetan ikus dezakegunez, herrikoek arrainak baldeka harrapatzen zituzten. Ordura arte ezagutzen ez zen antxoen sarrera ahaztezin hau, ordutik ere ez da berriro errepikatu. Historikotzat jo dezakegu beraz 1957an Portu Zaharrean gertatutakoa eta hura ikusi eta bizi zuten lekukoak bilatu eta aurkitu egin ditugu historia xeblete hau lehenengo eskutik ezagutu ahal izateko. Horrela, ba, urte haietan, udazkenero, antxoa mordoa harrapatzen zela jakin dugu. 40 eta 50eko hamarkadetan Bermeoko txalupak Algortako porturaino etortzen ziren antxoa bila, bisigu eta txitxaroren arrantzan amuzki bezala erabiltzeko. Baina 1957ko azaroan gertatutakoak ez dauka aurrekaririk. Txoriek eta beste

arrain askok bultzatuta milaka antxoa Algortako porturaino sartu zen eta oxigeno falta zela-eta ito ziren. Ondoko argazkian argi ikus daitekeenez, herritarrek baldeka ateratzen zituzten arrainak egun gogoangarri hartan. Arrantza egitea baino gehiago antxoak batzea izan zen hura. Lekukoek diotenaren arabera, egun hartan 8.000 kilo baino gehiago lortu zituzten eta denbora eta bitarteko faltagatik beste tona asko itsasoan galdu ziren. Orduan kiloa 2 pezetatan zegoen eta lagun askok 700 pezeta baino gehiago lortu zituzten egun ahaztezin hartan. Txalupa bete, Santurtzira eroan eta berriro Portu Zaharrera bueltatzen ziren herri honek inoiz bizi duen arrainketarik ederrenean parte hartzen jarraitzeko. Argitaratzen dugun argazkia egun hartan gertatutakoaren proba ukaezina duzue. ^m



Bittor Egurrela

Sopelako ikastola 1977/1978

Goian Ander Deuna ikastolako hamar ikasle dituzue orain dela hogeita bost urte harrutako argazkian. Sopelako ikastolaren oinarria, Alkartasuna taldea izan zen. Ez ditugu sortzaile guztien izenak aipatuko, ziur gaude eta, baten bat konturatu barik ahaztuko dugula. Horiek guztiek egindako lanari esker, 1968ko iraillean, San Pedro elizako San Antonio aretoan hasi ziren zazpi ume Goizuetako Begoña Zabala lehenengo andereñoarekin euskaraz ikasten. Areto hau Nabarnizko Nikola Telleria jaunak, orduko Sopelako abadeak eskaini zien.

Ander Deuna ikastolak ezaugarri nagusi bi izan ditu: herri ikastola (guztietatik zabalik egon da) eta parte hartzailea (guraso guztiek lan egin behar izan dute nola edo ahala ikastolan) izatea. Barne arautegian 14. artikulua honela dio: “Gurasoen parte-hartzea ikastolaren lanean, seme-alabak elkarre baten kide sentiarazteko eredu garrantzitsuenetarikoa izango da; behar-beharrezkoa ikastolarentzat eta gizartearentzat orokorrean”. Artikulu hau bene-benetan bereganatu zutelako dago Sopelako ikastola dagoen tokian.

Goian: Alberto Carrason, Aitor Galbarriartu / **Bigarren irian:** Jon Larrinaga (ikaslea), Juan Manuel Pasines, Aitor Uranga, Gorka Aldatz, Julen Leon Olabarrieta / **Behean:** Itziar Molina, Miren Avestegi, Ander Urutia, M. Gorostola, Marisa Elorriaga

KLAUDIO LANDA

“Egunsentian eta pertso-
narengan sinesten dut”



- Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...**
Ekaitza.
- Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?**
Batzuetan gezurrak esaten ditudala.
- Maiz errepikatzen zaizun ametsa...**
Erotikoa, baina ez dizuet kontatuko.
- Zure haurtzaroko oroitzapen bat...**
Arkitektoa nintzela eta dorre altu bat eraiki nahi nuen, baina gora iristean ez nuen inoiz amaitzen. Beraz, amaitu gabeko dorrea.
- Zein da gehien miresten duzun pertsona?**
Neure ama.
- Zer da pertsona batengan gehien baloratzen duzuna?**
Zintzotasuna.
- Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?**
Triste dagoen pertsona bati barrea atera diodala.
- Zein komentariok egin dizu minik gehien?**
“Bukatu dira natillak” (jantokian).
- Zein da zure libururik gogokoena?**
“El perfume”, Patrick Süskins.
- Abestirik gustukoena?**
Presuntos Implicados-ek Pancho Céspedes-ekin batera kantatzen duen “Nadie como tú”.
- Eta film bat?**
“El padre de la novia”
- Zein lema egingo zenuke zeurea?**
Erdaraz esaten den bezala “compartir es amar”.
- Zertan edo norengan sinesten duzu?**
Egunsentian eta pertsonarengan.
- Zerbaitetaz damutzen zara?**
Oraindik ez zait damutzeko garaia heldu.
- Zerk ematen dizu beldurra?**
Elkarrizketa ezak.
- Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu?**
Pertsona askok eta momentu honetan pertsona batek bereziki.
- Euskitzeri buruz zer egingo zenuke?**
Zintzoa, leiala, ona eta guapo! m



eskualdeko musika elektroniko egileen bilduma UK aldizkariaren eskutik

- 1 TRIBAL UNDERGROUND / I’m William Wallace (Isr@)
- 2 TIERRA / Elektronika (Guillermo Balzola, Virginia Elorduy)
- 3 JAZZKOTEK / Poem (Juan Ballaz)
- 4 TRITURBO / Jah-Ba-Dub (Koko Navajas, Lion Pilon, Aitzol Unzurrunzaga)
- 5 ACTIVE-EAST / Active-east (Gaizka Pereda, Lion Pilon, Aitzol U.)
- 6 EL HURAKAN / American phanatic feat taliban (Aitzol U.)
- 7 JAZZKOTEK / Ronning midnigth (Juan Ballaz)
- 8 TEMPLAR & BIRDY / Power records (Luis A. Ruiz, Javier Torre)
- 9 EL HURAKAN / Uk-Ok (Aitzol U.)
- 10 TRITURBO / 100 kg. artobixar (Koko Navajas, Lion Pilon, Aitzol U.)
- 11 MESSAGE / Give me an instrumental reason (Borja Serra)

KLAUDIO LANDA—. Euskal panoraman pertsona ezaguna dugu. Ea herrian jaio zen orain 34 urte (1967). Gaztetan ikasketan Bilboko Elkano ikas-tolan egin zituen eta Kazetaritzan lizentziatu zen Leioan. Ordutik edozein tokitan aurki dezakegu Klaudio, kazetaritzan medio guztiak probatu ditue-la esan daiteke. Kurrikulum zabala beraz, *Aizu!* aldizkarian hasi zen lanean, Korrikako prentsa bulegoan ere egon zen, *Zazpika*-n irakurri ahal dugu igandero eta Sorgiñen Laratza saioan euskal glamourra ezagutarazi nahi digu. Guzti gau kontutan harturik eta aktore bezala ere zenbait paper egin baditu ere, irratian disfrutatzen du gehien, Txomin Barullo irratian hasi zen eta Euskadi Irratiko Prime Time saioan zazpi urte daramatza. Egunean zehar hainbeste lan eginda berarentzako denborarik edukiko ote du?

